



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HERIOTZA-DOLUA ETA GORPUTZ ADIERAZPENA: INTERBENTZIO PSIKOHEZITZAILEA LEHEN HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Santiso Maiso, Ana

ZUZENDARIA: Ramos Díaz, Estitxu

2023

LABURPENA

Hezkuntzan heriotza eta heriotza-dolua lanketa eskasak egoera hauek bizitzean emozioen kudeaketa desegokia ekar dezake. Hori dela eta, gai hauek lantzeak garrantzi handia hartzen du. Heriotza-dolua landu ahal izateko, lehenik eta behin, heriotza lantzea beharrezkoa da. Ikasleen garapenari erreparatuz, 8-9 urterekin (Lehen Hezkuntzako hirugarren maila) heriotza osotasunean ulertzeko prest daude, hau da, heriotzaren ezaugarri guztiak barneratzeko gaitasuna garatu dute. Heriotza eta heriotza-dolua eskolan lantzeko hezkuntza emozionaletik abiatzea ezinbestekoa da eta, horretarako, gorputz adierazpena baliabide egokia da. Teoria honetan oinarrituz, gradu amaierako lan honen bidez heriotza eta heriotza-dolua ulertzeko interbentzio psikohezitzaile bat aurkezten da, ikasleek egoera bizitzean kudeaketa egokia egin dezaten helburua izanda. Saiok gorputz adierazpena baliabide gisa hartzen dute eta hau Gorputz Hezkuntzan landu beharreko edukia den heinean, proposatzen den zazpi saioko interbentzio psikohezitzailea Gorputz Hezkuntzako saiotan aurrera eraman daiteke, saio bakoitzari 50 minutu eskainiz. Honi esker, heriotza eta heriotza-dolua zer den gorputz adierazpenaren bidez landuko da eta, ondorioz, heriotza-dolua pairatzean ikasleek gertatutakoa ulertzeko baliabideak izango dituzte, etorkizunean kudeaketa arazoak saihestuz.

Hitz gakoak: heriotza, heriotza-dolua, interbentzio psikohezitzailea, Lehen Hezkuntza, gorputz adierazpena.

RESUMEN

El escaso trabajo de la muerte y del duelo de la muerte en educación puede acarrear una gestión inadecuada de las emociones al vivir estas situaciones. Por ello, el trabajo de estos conceptos es imprescindible y hay que tener en cuenta que, para poder trabajar el duelo de la muerte, primero se debe de trabajar la muerte. Al analizar el desarrollo del alumnado, se observa que con la edad de 8-9 años (tercer curso de educación primaria) se está preparado para entender el concepto de la muerte en su totalidad, es decir, que se han desarrollado las capacidades necesarias para interiorizar todas sus características. Para trabajar la muerte y el duelo de la muerte en la escuela, es necesario partir de la educación emocional y para ello la expresión corporal es un recurso válido. Teniendo esta teoría como base, mediante este trabajo de fin de grado se presenta una intervención psicoeducativa para que los alumnos entiendan los conceptos de la muerte y duelo de la muerte, teniendo como objetivo que estos puedan hacer una buena gestión de la situación llegado el momento. Las sesiones diseñadas se basan en la expresión corporal y, como esta es un contenido a trabajar en educación física, la intervención educativa se puede llevar a cabo en dicha asignatura, dedicando siete

sesiones de 50 minutos. Así, se trabajará la muerte y el duelo de la muerte mediante la expresión corporal y, por ende, los alumnos obtendrán recursos para entender y gestionar el duelo de la muerte al encontrarse en esa situación, evitando así complicaciones futuras.

Palabras clave: muerte, duelo de la muerte, intervención psicoeducativa, educación primaria, expresión corporal.

ABSTRACT

The lack of work of death and the grief of death in education can lead to inadequate management of emotions when living in these situations. Therefore, working on these concepts is essential and it must be taken into account that, in order to work the grief of death, first the death must be worked. When analysing the development of students, it is observed that with 8-9 years old (third year of Primary Education) they are prepared to understand the concept of death in its entirety, which means that students have developed the necessary capacities to internalize all its characteristics. To work on death and the grief of death in schools, it is necessary to start with emotional education which for body expression is a valid resource. Based on this theory, through this end-of-degree work, a psychoeducational intervention for students to understand the concepts of death and grief of death is presented, to ensure that they can manage the situation properly when the time comes. The sessions designed are based on body expression and, as this is a content to work in Physical Education, this psychoeducational intervention can be carried out in that subject, dedicating seven sessions of 50 minutes. Thus, the death and grief of death will be worked through body expression and, therefore, students will obtain resources to understand and manage the grief of death when they are in that situation, avoiding future complications.

Keywords: death, grief of death, psychoeducational intervention, primary education, body expression.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	- 6 -
2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA ETA AKADEMIKOA.....	- 7 -
3. MARKO TEORIKOA.....	- 8 -
3.1 HERIOTZA-DOLUAREN KONTZEPTUA	- 8 -
3.1.1 Heriotza-doluaren DEFINIZIOA	- 8 -
3.1.2 Heriotza-dolu MOTAK	- 8 -
3.1.3 Heriotza-doluaren FASEAK	- 9 -
3.1.4 Heriotza-doluaren ULERMENA	- 11 -
3.2 HERIOTZA-DOLUA HAURRENGAN	- 12 -
3.2.1 Heriotza-doluaren ulermena haurren adinen arabera	- 12 -
3.2.2 Heriotza-dolua hurrekin lantzearen garrantzia	- 13 -
3.3 HERIOTZA-DOLUAREN LANKETA LEHEN HEZKUNTZAN	- 13 -
3.3.1 Heriotza-dolua LHn lantzeko metodologia zehatzak	- 13 -
3.3.2 Heriotza-doluaren lanketa Gorputz Hezkuntzaren bitartez.....	- 14 -
3.4 HEZKUNTZA EMOZIONALA GORPUTZ ADIERAZPENAREN BITARTEZ.....	- 15 -
3.4.1 Zer da gorputz adierazpena.....	- 15 -
3.4.2 Gorputz adierazpena eta emozioak LHn.....	- 15 -
4. HELBURUA.....	- 16 -
5. INTERBENTZIO-PSIKOHEZITZAILEAREN PROPOSAMENA: Heriotza ezagutzen ...	- 17 -
5.1 JUSTIFIKAZIOA.....	- 17 -
5.2 HELBURUAK.....	- 17 -
5.2.1 Helburu orokorra	- 17 -

5.2.2 Helburu espezifikoak	- 18 -
5.3 PARTE-HARTZAILEAK	- 18 -
5.4 PROZEDURA ETA KRONOGRAMA.....	- 19 -
5.5 INTERBENTZIO PSIKOHEZITZAILEAREN PROPOSAMENA	- 21 -
5.5.1 Lehenengo saioa: Heriotza ezagutzen.....	- 21 -
5.5.2 Bigarren saioa: Ezetz ekidin!	- 22 -
5.5.3 Hirugarren saioa: Atzera joan gaitezke?	- 23 -
5.5.4 Laugarren saioa: Bat, bi, hiru, geldil!	- 24 -
5.5.5 Bostgarren saioa: Detektibeak gara!.....	- 25 -
5.5.6 Seigarren saioa: Guztiok berdin.....	- 26 -
5.5.7 Zazpigarren saioa: Heriotza ezagutzen dugu.....	- 27 -
5.6 EBALUAZIOA	- 28 -
6. ONDORIOAK	- 29 -
7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	- 33 -
8. ERREFERENTZIAK	- 34 -
ERANSKINAK	- 37 -
E.1 SAIOPEN EGITURA.....	- 37 -
E.1.1 Lehenengo Saioa: Heriotza ezagutzen.....	- 37 -
E.1.2 Bigarren saioa: Ezetz ekidin!.....	- 39 -
E.1.3 Hirugarren saioa: Atzera joan gaitezke?.....	- 41 -
E.1.4 Laugarren saioa: Bat, bi, hiru, geldil!	- 43 -
E.1.5 Bostgarren saioa: Detektibeak gara!	- 45 -
E.1.6 Seigarren saioa: Guztiok berdin	- 47 -

E.1.7 Zazpigarren saioa: Heriotza ezagutzen dugu	- 49 -
E.2 HASIERAKO ETA AMAIERAKO EBALUAZIOA.....	- 51 -
E.2.1 Galdetegia.....	- 51 -
E.2.2 Elkarrizketarako galderak.....	- 51 -
E.3 ERDIKO EBALUAZIOA	- 52 -
E.3.1 Bigarren saioaren ebaluazioa.....	- 52 -
E.3.2 Hirugarren saioaren ebaluazioa	- 53 -
E.3.3 Laugarren saioaren ebaluazioa	- 54 -
E.3.4 Bostgarren saioaren ebaluazioa.....	- 55 -
E.3.5 Seigarren saioaren ebaluazioa.....	- 56 -
E.3.6 Zazpigarren saioaren ebaluazioa	- 57 -
E.4 MUSIKA SENTITZEN JARDUERAREN MUSIKA	- 58 -

1. SARRERA

Gradu amaierako lan honetan heriotza eta heriotza-dolua gorputz adierazpenaren bidez tratatzeko zazpi saioko interbentzio psikohezitzailea aurkezten da. Interbentzio psikohezitzailea diseinatzeko, heriotza eta heriotza-doluaren eduki teorikoak ezinbestekoak izan dira eta hauek marko teorikoan azaltzen dira. Zehazki, heriotza-dolua zer den, hurrek nola bizitzen duten, Lehen Hezkuntzan nola landu daitekeen eta gorputz adierazpena zer den aipatzen da. Proposatutako interbentzio psikohezitzailea aurrera eramaten duen edozein irakaslek eduki hauek kontrolatu beharko lituzke, proposamenaren aukera guztiak aprobetxatzeko eta era zuzenean gaia ikasleekin lantzeko.

Eduki teorikoei esker, heriotza eta heriotza-dolua lantzearen beharra justifikatzen da eta, gainera, gaia gorputz adierazpenaren bidez lantzearen onurak azaltzen dira. Heriotza gertu pairatzean, gizakiok emozio ezberdin asko bizitzen ditugu eta hauek ulertzeko eta kudeatzen jakiteko gorputz adierazpena tresna egokia da (Martín, 2021). Bestalde, gorputz adierazpena Lehen Hezkuntza landu beharreko zerbait dela aipatzerik dago, Gorputz Hezkuntzaren bitartez (Larraz, 2008).

Eduki teorikoak azaldu ondoren, interbentzio psikohezitzailearen proposamena aurkezten da. Horren bidez, heriotza ulertzeko behar diren ezaugarriak lantzen dira eta heriotza-dolua ikasleei aurkezten zaie. Heriotzaren ezaugarriak ulertu ezean, heriotza-dolua kudeatzea ezinezkoa delako. Proposamena Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleentzat bideratuta dago, adin horrekin heriotzaren ezaugarri guztiak ulertzeko eta barneratzeko ahalmena dutelako. Hori horrela izanda ere, ikasle taldea aztertuz, egokitzapen ezberdinak egitea beharrezkoa izango da, proposamena ikasle taldearen berariazko ezaugarrietara egokitzeko.

Azkenik, gradu amaierako lan hau egitean aurkitutako ondorioak azaltzen dira eta, ondoren, mugak eta hobekuntzak. Halaber, lanaren amaieran interbentzio psikohezitzailea aurrera eramateko beharko den materiala aurkezten da, irakasleen lana errazteko nahiarekin.

Amaitzeko, lan honekin ikaskuntza profesionalak ez ezik, ikaskuntza pertsonalak ere lor daitezkeela aipatzerik dago. Orokorrean heriotza eta heriotza-dolua hezkuntzan lantzen ez diren gaiak dira eta, lehenago edo beranduago, guztiok biziko dugun egoerak dira. Hori da, hain zuzen ere, lana egiteko izan dudana motibazio pertsonala, hurrengo orrialdean zehaztasun handiz azaltzen dudana. Bestalde, nahiz eta gradu amaierako lan hau hezkuntzara bideratuta egon, aurkezten diren ideiak hezkuntzatik at erabilgarriak direla aipatzerik dago.

2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA ETA AKADEMIKOA

Gradu amaierako lan hau egitean, motibazio nagusi bat izan dut eta hori azaltzeko atzera begiratzea ezinbestekoa da, hain zuzen ere 2018. urteko urrira. 16 urte nituen eta Batxilergoko bigarren mailan nengoen nire ama hil zenean. Amaren heriotza ematean, nire buruan emozio eta jarrera ezberdin asko pairatu nituen eta, askotan, haien kudeaketa zaila egin zitzaidan. Hori ez ezik, ondoan neuzkan pertsonak, lagunek zein irakasleek, askotan ez zekiten nola jokatu nirekin eta ez zituzten nire emozioak ulertzen.

Batxilergoa amaitzean eta Lehen Hezkuntzako gradua egitean, ama askotan gogoan neukan eta heriotza eta heriotza-dolua ez zela unibertsitatean lantzen behatu nuen. Horrekin batera, batxilergoan bizitakoa gogoratu nuen. Ni bezala, ikasle askok gertuko pertsonen heriotza bizitzen dute eta horrek ondorio ezberdinak ekartzen dizkie. Hori gertatzean, heriotza ondo ulertu edota heriotza-dolua nolakoa den ezagutu ezean, egoera zail daiteke eta ondorio larriak sortu.

Hau dela eta, derrigorrezko Lehen Hezkuntzan ikasleek heriotza lantzearen garrantziaz jabetu nintzen eta irakasle bezala ez nukeela hori egiten jakingo ikusi nuen. Horregatik, gradu amaierako lanaren gaia aukeratzean, heriotza eta heriotza-dolua landu nahi nuen, ikasteko aukera izateko. Honi esker, helburu akademikoa ez ezik, helburu pertsonal bat bete dut: irakasle bilakatzean heriotza lantzen jakitea, ikasleek heriotza gertu biziz gero egoera ahalik eta hoberen kudeatzeko gai izateko.

Bestalde, gradu amaierako lan honen bidez, heriotzaz ikasi nahi nuen, heriotza eta heriotza-dolua tratatzeko esperientzia baino gehiago behar delako uste dudalako, eduki teorikoak zehazki. Eduki horiek dira, hain zuzen ere, heriotza eta heriotza-doluan zehar agertzen diren emozioak eta jarrerak ulertarazten dituztenak. Gainera, nire esperientzian eta lana egitean ikasitakoan oinarrituz, heriotza eta heriotza-doluaren ulermena eman ezean, bi gai hauen kudeaketa ezin dela zuzena izan uste dut. Horregatik, lan honetan heriotza ulertzeko interbentzio psikohezitzaile bat proposatzen dut, behin heriotza ulertuta heriotza-dolua tratatzeko aukera dagoelako.

Interbentzio psikohezitzaile honen bidez, ez dut soilik ikasleek heriotza gertu pairatzean egoera ulertzea bilatzen, baizik eta ikasleen inguruko norbaitek heriotza-dolua bizitzean egoera ulertzen jakitea ere. Horri esker, nik heriotza-dolua pairatu nuenean bizitakoa ikasleengan ekiditea bilatzen dut. Hasieran aipatu dudanez, nire inguruko pertsonak ez ninduten ulertzen eta ez zekiten nola jokatu eta egoera hori saihestea garrantzitsua iruditzen zait. Horretarako, heriotza eta heriotza-dolua ezagutzea ezinbestekoa da eta hori da, hain zuzen ere, interbentzio psikohezitzailearen bidez landu nahi dudana.

3. MARKO TEORIKOA

3.1 HERIOTZA-DOLUAREN KONTZEPTUA

3.1.1 Heriotza-doluaren DEFINIZIOA

Heriotza-dolua era ezberdin askotan defini dezakegu eta, horregatik, lan honetan definizio bat baino gehiago azaltzen da, ahalik eta definizio osatuena osatzeko nahiarekin. Lehenik eta behin, heriotza-dolua norbait galtzen dugunean pairatzen dugun prozesu normala dela esaterik dago, hau da, gorputzak ematen duen erantzun guztiz naturala (Artemori, 2015).

Halaber, Real Academia Española-k (2022) heriotza-dolua mina, samindura eta lastima inplikatzeko duen sentimendua bezala definitzen du. Horrekin batera, norbait hiltzean pertsonak egiten dituzten adierazpen guztiak biltzen dituela dio. Heriotza-dolua pertsona maite bat galtzean ematen dela jakitea garrantzitsua da (Salmero eta Valiente, 2018), ez baita edozein pertsona hiltzean ematen. Pertsona maiteak bizitzan zehar maite eta baloratu ditugun pertsonak dira (Artemori, 2015). Azkenik, heriotza-dolua bizitzean gorputzak hainbat aldaketa natural pairatzen dituela aipatzerik dago; bai fisikoki, bai kognitiboki (Salmero eta Valiente, 2018).

3.1.2 Heriotza-dolu MOTAK

Heriotza-dolua oinarritzko ezaugarri batzuk biltzen ditu eta horiek pertsona maite bat galtzean bizitzen dugun prozesu normala osatzen dute, baina, horietatik aparte Capodebilla-k (2007) beste sei heriotza-dolu ezberdin definitzen ditu. Heriotza-dolu mota ezberdinak azaldu baino lehen, heriotza-dolu normala edota naturala zer den azaltzerik dago, hortaz aldetzen dena identifikatu ahal izateko. Gainera, heriotza-dolu bakoitzean Capodebillak (2007) adierazten dituen ezaugarriak aipatuko dira, baina, hauek ez dira guztiz finkoak, pertsona bakoitzak galerak modu batean biziko dituelako.

Esan bezala, definitu beharreko lehen heriotza-dolua naturala edo normala da. Heriotza-dolu hau pertsonen bost dimentsioetan (fisikoa, emozionala, kognitiboa, jokabidea eta espirituala) eragina dauka. Pertsona maite bat hiltzean, gorputza estres egoera batean sartzen da eta horrek immunodepresioa sorrarazten du, gaixotasunak pairatzeko aukerak handituz. Emozioez hitz egitean, tristura, haserrea, beldurra, askatasuna, nekadura eta nostalgia beste batzuen artean nagusitzen dira eta horiek kontzentratzeko zailtasunak eragiten dituzte; nahasteak, interes faltak eta ahazteak eraginez. Honekin batera, pertsonen

jokaeran eragin handia izaten du, negarra, isolamendua, hiperaktibitatea edo sustantzien kontsumoa handituz (Echeburúa eta Herrán, 2007). Azkenik, heriotza-doluak espiritualki dauzkan eraginak aipatzerik daude, bakoitzaren sinesmenak hausnartzen baitira, heriotzari eta bizitzari buruzko galderak eginez.

Ezaugarri hauetatik at dauden erantzunak Capodebillak (2007) ez normaltzat hartzen ditu, baina, horrek ez du patologikotzat hartu behar ditugunik esan nahi. Lehenengo mota heriotza-dolu aurreratua da. Hau, izenak esaten duen bezala, heriotza iritsi baino lehen ematen da, heriotza saihetsezina eta denbora gutxian emango denean agertzen da (Meza-Dávalos et al., 2008). Honi esker, gorputza galerari pixkanaka adaptatzen doa.

Heriotza-dolu aurreratuaren kontrakoa heriotza-dolu atzeratua da (bigarren mota). Heriotza-dolu honetan, heriotza heltzean oso erantzun gutxi ematen dira, baina, denbora pasa ahala, erantzun horiek azaleratzen dira. Honek emozioak adierazteko zailtasunekin erlazionatuta dago.

Hirugarren mota heriotza-dolu kronikoa da. Hau pertsona batek galerari adaptatzeko gai ez denean ematen da, hil den pertsona beti presente mantentzen duenean (Meza-Dávalos et al., 2008). Honekin batera, askotan, heriotza-dolu exageratua agertzen da (heriotza-doluaren laugarren mota), emozio edo ezeztapen handiak agertzen direnean ematen dena.

Bostgarren mota pertsona maite bat hiltzean agertzen diren erantzunak heriotzarekin identifikatzen ez direnean ematen da. Honetan, heriotza-dolu normalaren ezaugarriak agertzen dira, baina, heriotza-dolua pairatzen duen pertsonak ez du honekin erlazionatzen. Hau heriotza-dolu mozorrotuta deitzen da.

Azkenik, Capodebillak (2007) heriotza-dolu anbigua definitzen du, gainditzeko zailena. Hau hil den pertsona psikologikoki presente mantentzen denean agertzen da (fisikoki presente ez egon arren) edota alderantziz. Heriotza-dolu hau katastrofeen eraginez ematen diren heriotzek sortzen dute, askotan gorpuak agertu ez direlako edota dementziak daukaten pertsonak pairatzen dute. Kasu hauetan, zalantza asko eta antsietate maila handiak agertzen dira, heriotza ez baita guztiz argia.

3.1.3 Heriotza-doluaren FASEAK

Heriotza-doluaren faseak definitzeko Kübler-Ross psikiatrak (1973) ezberdintzen dituen heriotzaren faseak laburbilduko dira, heriotza faseak heriotza-doluarekin erlazionatuz. Kübler-Ross-ren (1973) arabera, hiltzen ari den pertsona batek eta bere inguruan dauden pertsonak hura hiltzean bizitzen dituzten faseak berdinak dira. Berdinak izan arren,

ezberdintasun bat ematen da, hiltzen ari den pertsona bere ingurukoak baino lehen fase ezberdinetatik pasatzen da, nahiz eta batzuetan denborak bat egin. Inguruko pertsonak bestearen heriotza ematen denean fase berdinetatik pasatzen dira, nahiz eta Capodebillak (2007) definitzen duen heriotza-dolu aurreratuan fase batzuk lehendabizi bizi.

Heriotza-dolua bost fase ezberdinetan banatzen da (Kübler-Ross, 1973), lehenengoa ezeztapenaren eta isolamenduaren fasea izanda. Fase honetan, heriotza gauza errealtzat hartzen da, baina, pertsonak ez du berari gertatu zaionik sinesten eta, askotan, akats bat bezala ulertzen du. Hau dela eta, lehenik ezeztapena agertzen da eta ondoren isolamendua, ezeztapena desagertzen hasten denean. Isolamenduagatik, heriotza-dolua pairatzen duen pertsonak ez dago honi buruz hitz egiteko prest eta, horregatik, ingurukoek hura prest egon arte itxaron behar dute, sentimenduak besteekin adierazteko momentua iritsiko delako (hitz eginez edota keinu txikien bidez).

Kübler-Ross-ek (1973) definitzen duen bigarren fasea haserrea da eta lehenengo fasearen ezeztapena gehiago mantendu ezin denean eta isolamendua mantentzen denean agertzen da. Heriotza-dolutik pasatzen den pertsonak atentzioa eskatuko du, nahiz eta askotan isolatu. Heriotza-dolua pairatzen duen pertsonaren inguruan dauden pertsonentzat oso fase zaila da, fase honetan ez delako laguntza onartzen eta haserrea haiekin pairatzen delako. Hau dela eta, heriotza-doluan dagoen pertsona ulertzea ezinbestekoa da eta ingurukoek ezin dute haserrea pertsonalki hartu, ez baitu haiekin zerikusia. Fase honetan, ingurukoek tolerantzia handia izan behar dute.

Hirugarren fasea negoziaketa fasea da (Kübler-Ross, 1973). Honetan, heriotza gertatu dela ulertzen da, eta pairatzen diren emozioak identifikatzen dira, gertatzen dena hobeto ulertuz eta kudeatuz. Fase honetan, ingurukoek laguntza eskatzen da, nahiz eta askotan zeharkako modutan eskatu. Gainera, lehen fasean aipatutako sentimenduak besteekin adierazteko momentua iristen da. Pertsona batzuk, sentimenduez hitz egiteko gai dira, modu argian adieraziz, baina, beste batzuk keinu txikiekin eta ez hitzezko adierazpenekin sentitzen dutena adieraziko dute.

Laugarren fasea Kübler-Rossek (1973) depresioaren fasea bezala definitzen du. Haserrea eta ezeztapena guztiz desagertzen dira eta errua edota damutasuna agertzen da. Heriotza-dolutik pasatzen ari den pertsona heriotza gertatu baino lehen egindako gauzak hausnartzen ditu, gauzak beste modu batean egin izan balitu heriotza ekidituko litzakeela edota heriotza haren errua dela pentsatuz. Fase honetan, tristura nagusitzen da eta ingurukoek erantzun naturala animatzen saiatzea izan arren, kontuz ibiltzea ezinbestekoa da, heriotza-dolutik pasatzen ari den pertsonak ez duelako egoera ingurukoek bezala ikusten.

Horregatik, tristura hori normaltzat hartzea eta egoera ulertzea garrantzitsua da, norbait galtzean triste egotea naturala delako. Fase honetan, heriotza-dolutik pasatzen diren pertsonak aurreko faseetan baino laguntza gehiago eskatzen dute, ingurukoekin sentimendu eta emozio gehiago adieraziz.

Kübler-Rossek (1973) definitzen duen azken fasea onarpena da. Fase hau emateko denbora ezinbestekoa da, heriotza gertatzean kudeatu beharreko gauza asko daudelako. Fase hau emateko, ingurukoekin laguntza ezinbestekoa da, heriotza-dolutik pasatzen ari den pertsona haiekin hitz egiteko aukera izateko eta egoera onartzen hasteko. Fase honetan, ezeztapena, isolamendua, haserrea eta depresioa alde batera geratzen dira, baina, horrek ez da poztasunaren sinonimoa, heriotza-dolua oraindik hor dagoelako. Fase honetan, ingurukoekin interakzioak handitzen doaz, heriotza gertatu baino lehen ematen ziren interakzioak eta normaltasuna pixkanaka berreskuratuz.

3.1.4 Heriotza-doluaren ULERMENA

Gure kulturaren, heriotza uztea edota galtzea esan nahi du eta horregatik ez da ulertzeko ezta gainditzeko erraza (Castro, 2012). Heriotza guztiz ulertuzat emateko, bost osagai ezberdin ulertu, onartu eta barneratu behar ditugu (Salmero eta Valiente, 2018): heriotzaren itzulezintasuna, aplikagarritasuna (guztioz hilko gara), saihetsezintasuna, kausalitatea (nahiz eta heriotza gehienetan zahartzaroarekin edo gaixotasunekin lotu, biolentziarekin ere lotu behar dugu) eta gelditze funtzionala (oinarrizko bizi-funtzioak egiteko gai ez izatea).

Heriotza agertzean, pertsonak garen heinean dauzkagun hilezkortasunaren fantasiak amaitzen dira (Castro, 2012) eta egoera ulertzeko beharra agertzen da. Ulermen hori ez da beti berdina gertatzen, hil den pertsonarekiko daukagun distantzia emozionalaren arabera errazagoa edo zailagoa baita. Distantzia hori hurbila denean bi pertsona mota ezberdin daitezke (Salmero eta Valiente, 2018; Echeburúa eta Herrán, 2007): alde batetik, pertsona adierazgarriak, gure bizitzan inpaktu handia izan dutenak eta, beste aldetik, hurbileko pertsonak, gure atxikimendu gunean daudenak. Bi kasuetan, heriotza asimilatzea eta ulertzea zaila izaten da, baina, atxikimendu gunean dauden pertsonen kasuan, zailagoa da.

Heriotza ulertzearen prozesuan, pertsona bakoitzak dauzkan sinesmenek leku handia hartzen dute eta horiek errespetatzea ezinbestekoa da. Heriotza ondoren dagoenari buruzko jakintza gehiegi ez dagoenez, beldurra eta ulertzeko zailtasunak agertzen dira eta horregatik, hain zuzen ere, sinesmenek garrantzia hartzen dute (Cano-Cárdenas eta Herrera, 2019), erlijioek ezjakintasun horiei erantzunak ematen dizkietelako (Castro, 2012).

Heriotzaren ulermena heriotza-dolua gainditzeko ezinbestekoa da. Eguneroko bizitzan naturaltasun gehiagorekin heriotza jorratuko balitz, honen ulermena eta lanketa errazagoa izango litzateke (Kübler-Ross, 1973).

3.2 HERIOTZA-DOLUA HAURRENGAN

3.2.1 Heriotza-doluaren ulermena haurren adinen arabera

Haurrek ez dute berdin jokatzeko heriotzaren aurrean, batzuk isiltasunean eta isolamenduan babestuko dira eta beste batzuk, berriz, negarrian eta oiuetan (Kübler-Ross, 1973). Haurren jokatzeko era ezberdina izanda ere, heriotza-doluaren ulermena adinarekin lotuta dago. Sei urte baino gutxiago haurrek heriotza mugikortasun ezarekin lotzen dute eta bederatzi urtetik aurrera daukaten ideia errealistagoa da, baina, bi kasuetan, hildakoa oraindik nonbaiten dagoela eta bueltatuko dela uste dute (Salmero eta Valiente, 2018). Haurren adina eta heriotza-dolua sakonago aztertzean, adin bakoitzean dauden ezaugarri batzuk bereizten dira:

- Bost urterekin: Heriotza saihetsezina dela ulertzen dute, baina, ez dute itzulezintasuna ulertzen (Castro, 2012). Gainera, heriotza pertsonaia batekin lotzen dute, norbaitek hildakoa eramango balu bezala (Kübler-Ross, 1973).
- Sei urterekin: Heriotza betiko banantzearekin erlazionatzen dute eta horregatik maite dituzten pertsonak galtzeko beldurra agertzen da (Castro, 2012).
- Zazpi urterekin: Haren heriotza egunen batean helduko delaz jabetzen da eta Salmerok eta Valientek (2018) aipatzen dituzten osagaietatik aplikagarritasuna barneratu ez den bakarra da (Castro, 2012).
- Zortzi eta bederatzi urterekin: Aplikagarritasunaren osagaia barneratzen doa (Kübler-Ross, 1973).
- Hamar urterekin: Heriotzaren osagai guztiak onartzen eta barneratzen dituzte (Castro, 2012).

Aipatutako ezaugarriak haurrengan orokortzen diren ideiak dira, baina, haur guztietan ez direla horrela agertzen aipatzerik dago. Adibidez, haur txikiek heriotza oso hurbil pairatzen dutenean, adinaren araberako ulermen prozesua azkartzen da (Castro, 2012) eta heriotzaren osagaiak, beharra dela eta, askoz lehenago barneratzen dituzte.

Haurrek adinaren arabera heriotza ulertzeko modua ezagutzea ezinbestekoa da, haurrek ez baitute helduek bezala ulertzen. Oso garrantzitsua da ulermen prozesua ezagutzea eta haurrei ez zuzentzea, etorkizunean heriotzarekin zerikusia daukaten nahaste emozionalak ez izateko (Kübler-Ross, 1973).

3.2.2 Heriotza-dolua haurrekin lantzearen garrantzia

Heriotza familietara heltzen denean, haurrak askotan alde batera uzten dira, pertsona gutxi batzuk baino ez baitira gai hau umeekin tratatzeko seguru sentitzen (Kübler-Ross, 1973). Gainera, haurrekin heriotza-dolua lantzeko haiek nola bizitzen duten ulertzea ezinbesteko da.

Heriotza-doluan zehar haurrek ez badute inolako laguntzarik jasotzen, haien ideia propioak garatuko dituzte, ezeztasuna indartuz (Salmero eta Valiente, 2018). Hau ekiditeko, helduek umeei gertatzen ari dena azaldu behar diete, heriotzaren eta heriotza-doluaren ulermena errazteko (Sánchez, 2019). Honengatik, gurasoek eta haurrarekin harreman estua daukaten pertsonak heriotzarekiko eta heriotza-doluarekiko dauzkaten jarrerak eta haurrekin gai hauek tratatzeko erak haurrengan eragin handia daukate (Kübler-Ross eta Alcover, 1992).

Heriotza-doluaren lanketa umeekin egiteko, heriotzan gertatzen dena helduek haurrei hitzekin adierazi behar diete, haurrek zer gertatzen den ondo uler dezaten eta haiek haien kabuz erantzunak ez bilatzeko eta ideia fantastikoak ez eratzeko (Castro, 2012). Hau gertatzen ez bada, heriotza-dolua gehiegi hunkitu diezaieke, etorkizunean heriotzarekiko ahultasuna garatuz (Sánchez, 2019).

Halaber, heriotza familietara heldu aurretik landuz gero, haurrek errazago onartuko dute, shocka murriztuz eta emozioak errazago adieraziz (Kübler-Ross, 1973). Honekin batera, familian heriotza agertzean haurrei bertan presente egotea utzi zaienean etorkizunean heriotzarekiko prestakuntza handiagoa dutela eta heriotza-dolua hobeto onartzen dutela Kübler-Rossek eta Alcoverrek (1992) aztertu dute.

3.3 HERIOTZA-DOLUAREN LANKETA LEHEN HEZKUNTZAN

3.3.1 Heriotza-dolua LHn lantzeko metodologia zehatzak

Atal honetan, Sánchez-ek (2019) aipatzen dituen heriotza-dolua lantzeko hiru metodologia ezberdin azaltzen dira, haien definizioa emanez. Bakoitzean heriotza-dolua modu ezberdin batean jorratzen da eta, helburuaren arabera, bat edo beste egokiagoa izango da.

Lehenengo metodologia heriotzan ez pentsatzean datza. Metodologia honen oinarria hil den pertsonan ez pentsatzea da, pentsatzeak ez baitu ezer konponduko eta heriotza-dolua balazta dezakeelako. Hil den pertsonan ez pentsatzeko, haurrei entretenituta mantentzen dizkieten baliabideak eskaini behar zaizkie, heriotzari buruzko galderak geldiarazteko. Metodologia honekin, hurrek ez dute errealitateari aurre egiten. Metodologia hau funtzionatuz gero, haurra bizitza normalera bueltatzen da, heriotza ahaztuz. Aitzitik, funtzionatu ezik, haurrak heriotzari buruzko galderak egiten jarraituko ditu eta ez duenez erantzunik jasoko haren ideia propioekin osatuko ditu, frustrazioa bezalako sentimenduak azaleratuz.

Bigarren metodologian heriotza betikotasunaren narraziotzat hartzen da. Metodologia honek erlijio monoteistetan oinarritzen da eta hildakoa beste leku batera doala defendatzen du. Honekin, haurrei hil ondoren beste bizitza bat dagoela azaltzen zaie.

Hirugarren metodologiari esker, heriotza ingurunean gertatzeak hazte kognitibo-emozionalean daukan eragin positiboa lantzen da. Metodologia honek, lehenengoa ez bezala, heriotzan pentsatu behar dela defendatzen du, horri esker hari buruz ikasteko aukera daukagulako eta haurren hezkuntzan ekarpenak egiten dituelako. Horrela, hurrek heriotzaren osagai guztiak ulertzeko behar diren gaitasunak garatzen dituzte, osotasunean haziz. Halaber, hurrek heriotza eta horren ostean bizi beharreko heriotza-dolua ulertzen dute eta garai horretan sentitzen dituzten emozioak kudeatzen ikasten dute. Baina, ulermen eta kudeaketa hau gerta dadin, umek haien pentsamenduak ulertzen duen pertsona bat ondoan izan behar dute, laguntza eta enpatia eskaintzen dion norbait.

3.3.2 Heriotza-doluaren lanketa Gorputz Hezkuntzaren bitartez

Kübler-Rossek (1973) zehatzen dituen heriotza-doluaren faseetan aipatzen den bezala, heriotza-doluan zehar emozio ezberdinak pairatu eta kudeatu behar dira. Emozioei esker, bizitzaren hainbat alderdi adierazten dira eta bizitzaren erregulazioa ematen da (Lagardera eta Lavega, 2011).

Gorputz adierazpena emozioen adierazpena, kudeaketa eta erregulazioa egiteko baliabide egokia da (Martín, 2021). Hezkuntza formalean, gorputz adierazpena Gorputz Hezkuntzaren barruan sartzen da (Larraz, 2008); intentzio artistikoak edota adierazpen intentzinoa dauzkaten jardueren bitartez, adierazpenaren eta komunikazioaren lanketa bermatuz.

Halaber, gorputz adierazpenaren bidez, bai ikasleen arteko bai ikasleen eta irakasleen arteko komunikazioa lantzen da (Castillo eta Rebollo, 2009), heriotza-doluaren fase ezberdinetan hain garrantzitsua dena (Kübler-Ross, 1973).

3.4 HEZKUNTZA EMOZIONALA GORPUTZ ADIERAZPENAREN BITARTEZ

3.4.1 Zer da gorputz adierazpena

Gorputz adierazpenaren bidez, gorputzarekin etengabe gauzak adierazten dira, keinuei, posturei eta begiradei esker (Coterón eta Sánchez, 2010). Hau Gorputz Hezkuntzan erabil daiteke; ikasleen garapen integrala lortzeko eta gorputz-hizkuntza garatzeko (Castillo eta Rebollo, 2009).

Gorputzarekin adierazpenak osatzeko, ikasleek haien imajinazioa eta sormena martxan jartzen dute, haien afektibitatea garatuz (Larraz, 2008). Honi esker, ikasleek bere buruarekin konektatzeko aukera daukate (Coterón eta Sánchez, 2010), haien adierazpen gaitasunak ezagutuz eta garatuz.

Halaber, gorputz adierazpenak barruan daramaguna azaleratzeko balio du, gorputzaren mugimendua komunikazio tresna bezala erabiliz (Ortiz, 2002 apud Castillo eta Rebollo, 2009). Gainera, gorputz adierazpenaren bidez komunikatzeko sortutako mugimenduak mota askotakoak izan daitezke: dantzak, gorputzaren mugimenduak, dramatizazioak, musikalak... (Larraz, 2008).

Hezkuntzan, gorputz adierazpenak oso balio garrantzitsua izango du, ikasleen komunikazioa garatzeko eta ikasleen eta irakasleen arteko komunikazioa hobetzeko (Castillo eta Rebollo, 2009). Bestalde, gorputz adierazpeneko ekoizpenek komunikatzeko, entzunda sentitzeko eta besteengan emozioak sorrarazteko balio dute (Larraz, 2008).

3.4.2 Gorputz adierazpena eta emozioak LHn

Edozein gorputz adierazpeneko ekoizpen egiteko, emozioetan oinarritzen gara, horiek baitira gorputz adierazpenaren oinarria (Azpeitia, 2015). Hori dela eta, gorputz adierazpenak emozioen lanketa eta gorputzaren ezagutza ahalbidetzen du (gainontzeko hezkuntza arloek ez bezala), ikasleei pertsona osoak bezala garatzeko aukera emanez (Echeverría, 2014). Halaber, gorputz adierazpena emozioak lantzeko aukera ezin hobea da (Lapuente, 2019); pertsonen beldurrak, sentimenduak, lotsak, desioak... azaleratzen baitira.

Gorputz adierazpenari esker, ikasleek bakoitzak era batean mugituko dela ikusiko dute, nahiz eta berdina adierazi nahi (Echeverría, 2014). Horrela, ikasleek emozio berdinak gorputz bakoitzean egoera ezberdinak sorrarazten dituela ulertuko dute (Azpeitia, 2015), gainontzekoengan sorrarazten duena ulertzeko aukera emanez.

Hau ez ezik, ikasleek gorputz adierazpenari esker, emozioak adierazteko gai izango dira, haien gorputza sentimenduak azaleratzeko bide bat dela ikusiz (Echeverría, 2014), nahiz eta bakoitzak modu ezberdin batean berdina azaleratu (Azpeitia, 2015). Honi esker, ikasleek haien burua hobeto ezagutuko dute eta besteekin komunikatzeko gaitasuna hobetzeko aukera izango dute (Coterón eta Sánchez, 2010).

Gorputz adierazpenaren bidez ikasleek emozioen lanketa egokia egin dezaten, irakasleak haren eskoletan klima egoki bat sortu behar du (Lapuente, 2019); non konfiantza, enpatia eta afektibitatea bermatzen den. Honekin batera, irakasleak ikasleek adierazpenak egitean eragiten dizkieten faktoreak ezagutu behar dituzte. Adibidez, ikasleek ez dute adierazpen berdinak egiten behatuta sentitzen direnean (Azpeitia, 2015).

Halaber, gorputz adierazpenak ikasleei haien emozioak azaleratzeko aukera ematen dien heinean, haien komunikazioaren hobekuntza ahalbidetuko du; bai beste ikasleen artean, bai ikasleen eta irakasleen artean (Echeverría, 2014). Komunikazio egokia izatea heriotza-dolua bezalako prozesuetan ezinbestekoa da, heriotzaren osagaiak ulertzeko (Salmero eta Valiente, 2018) eta zuzenak ez diren ideia fantastikoak ekiditeko (Castro, 2012). Hau ez ezik, heriotza-dolua fase ezberdinetan emozioak kudeatu behar direnez (Kübler-Ross, 1973), gorputz adierazpenak kudeaketa hori errazten eta ahalbidetzen du (Lapuente, 2019).

4. HELBURUA

Gradu amaierako lan honen helburua Lehen Hezkuntzan heriotza eta heriotza-dolua gorputz adierazpenaren bitartez lantzeko interbentzio psikohezitzaile bat diseinatzea da, ikasleak egoera horietarako prest egon daitezen. Horren bidez, 8-9 urteko haurrek heriotzaren bost ezaugarri nagusiak (itzulezintasuna, aplikagarritasuna, saihetsezintasuna, kausalitatea eta gelditze-funtzionala) ulertzea lortu nahi da, ikasleek heriotza-dolua ulertu ahal izateko eta; pairatuz gero, gertatutakoa hobeto kudeatzen jakin dezaten.

5. INTERBENTZIO-PSIKOHEZITZAILEAREN PROPOSAMENA: Heriotza ezagutzen

5.1 JUSTIFIKAZIOA

Heriotza-dolua gainditu ahal izateko, heriotza ulertzea ezinbestekoa da (Kübler-Ross, 1973) eta hori era egokian emateko bi alderdi ezinbestekoak dira. Alde batetik, Salmerok eta Valientek (2018) esaten duten moduan, heriotzaren ezaugarri guztiak ulertu eta barneratu behar dira: saihetsezintasuna, itzulezintasuna, gelditze-funtzionala, kausalitatea eta aplikagarritasuna. Eta, beste aldetik, heriotza eta heriotza-dolua eguneroko bizitzan naturaltasunez aipatu behar da, honen ulermena eta lanketa sustatzeko (Kübler-Ross, 1973).

Heriotza era egokian ulertzeko eta naturaltasunez lantzeko, Sánchezek (2019) proposatzen duen hirugarren metodologia erabiliko da. Hori jarraituz, ikasleekin heriotzaz hitz egingo da, heriotzaren ezaugarriak ulertzeko ikasleek behar dituzten gaitasunak garatuz eta heriotzak dakartzan emozioak landuz. Gainera, autore honek esaten duen moduan, irakaslearen papera ezinbestekoa izango da; ikasleen ideiak eta pentsamenduak ulertu beharko dituelako, laguntza eta enpatia eskaintzen duen bitartean.

Heriotza eta heriotza-dolua lantzean, heriotzaren ezaugarriak ez ezik, heriotza-doluan agertzen diren emozio ezberdinak lantzea garrantzitsua da, haien kudeaketa heriotza-dolua gainditzeko ezinbestekoa delako (Kübler-Ross, 1973). Emozioak lantzeko, gorputz adierazpena tresna egokia da; hari esker emozioak agerian geratzen direlako (Azpeitia, 2015) eta gorputz adierazpena emozioen adierazpena, kudeaketa eta erregulazioa bermatzeko baliabide zuzena delako (Martín, 2021).

Esan bezala, heriotza eta heriotza-dolua lantzean, heriotzaren ezaugarriak eta heriotza-doluen emozioak lantzea nahitaezkoa da, baina, lanketa hau ematean komunikazioa ezinbestekoa da (Kübler-Ross, 1973 eta Sánchez, 2019). Gorputz adierazpenak komunikazioa sustatuko du, haren bidez ikasleen eta irakaslearen arteko komunikazioa lantzen delako (Castillo eta Rebollo, 2009).

5.2 HELBURUAK

5.2.1 Helburu orokorra

Interbentzio-psikohezitzaile honen helburu nagusia heriotza zer den gorputz adierazpenaren bidez lantzea da, heriotza-dolua pairatzean gertatutakoa ulertzeko baliabideak izateko. Hori lortzeko, Salmerok eta Valientek (2018) proposatutako heriotzaren

bost ezaugarriak barneratzeko saio ezberdinak proposatzen dira, ikasleak heriotza-dolua bizitzean egoera ulertzeko eta emozioak kudeatzeko gai izateko helburuarekin.

5.2.2 Helburu espezifikoak

Helburu orokorrarekin lotuta, saio bakoitzaren helburu espezifikoak aurkitzen ditugu, heriotzarekin eta heriotza-doluarekin erlazionatuta. Lehenengo saioaren helburua ikasleek heriotzari buruz dauzkaten aurreiritziak jasotzea da, gaia ikasleei aurkezteko eta sarrera bat egiteko. Bigarren eta seigarren saioen artean heriotzaren bost ezaugarriak landuko dira (saihetsezintasuna, itzulezintasuna, gelditze-funtzionala, kausalitatea eta aplikagarritasuna) eta, berez, horiek ulertzea saio horien helburua izango da. Azkenengo saioan, berriz, ikasleek heriotza ulertzen dutenean, heriotza-doluan ematen diren fase ezberdinak landuko dira eta horiek ezagutzea izango da, hain zuzen ere, azken saioaren helburua.

Heriotzarekin eta heriotza-doluarekin lotutako helburuak ez ezik, heriotza eta heriotza-dolua gorputz adierazpenaren bidez landuko denez, honekin zuzenki lotuta dauden helburu batzuk ere landuko dira; hala nola, emozioak ezagutzea eta interpretatzea, gaitasun erritmikoa garatzea, hitzik gabeko komunikazioaren bidez adieraztea, interpretazio sorkuntza txikiak egitea eta sormena garatzea.

Bestalde, saioen bidez, ikasleek haien gorputza ezagutzeko aukera izango dutenez, gorputz eskema ezagutzea, gorputz kontzientzia lantzea, espazio-pertzepzioa garatzea eta lateralitatea lantzea beste helburu batzuk izango dira.

Azkenik, jarduera asko taldetan aurrera eramango direnez, talde dinamikak lantzea, taldetan estrategiak pentsatzea eta ikasleen arteko akordioak bultzatzea interbentzio psikohezitzailearen azkenengo helburuak izango dira.

Helburu hauek saio ezberdinetan zehar landuko dira, zehaztasunez zein saiotan lantzen diren ikusteko, ikusi *E.1 SAIOPEN EGITURA* eranskina.

5.3 PARTE-HARTZAILEAK

Proposatzen den interbentzio-psikohezitzailea Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleentzat diseinatuta dago; hau da 8-9 urteko ikasleentzat. Proposatzen den diseinua ez da testuinguru espezifiko batentzat diseinatu, baizik eta era orokorrean diseinatu da, edozein irakaslek oinarritzat hartzeko eta haren testuinguruan aplikatzeko aukera izateko. Hau da, diseinua errealitatean aurrera eramateko, proposatutako saioak eskolaren, gelaren eta

ikasleen ezaugarri espezifikoetara egokitzeko beharra dago, interbentzio psikohezitzailearen helburuak osotasunez lortu ahal izateko.

5.4 PROZEDURA ETA KRONOGRAMA

Proposamena diseinatzean, Salmerok eta Valientek (2018) proposatutako heriotzaren ezaugarriak oinarritzat hartu dira. Hori ez ezik, heriotza-doluaren lanketa ere egingo da. Heriotza-dolua ulertu ahal izateko, lehenik eta behin heriotza ulertzea beharrezkoa da (Kübler-Ross, 1973) eta horregatik interbentzio psikohezitzailean heriotza izango da landuko den lehendabiziko edukia. Gainera, heriotza eta heriotza-dolua emozioekin lotura handia daukate, horrelako egoerak bizitzean emozioak agerian geratzen baitira (Kübler-Ross, 1973). Hori dela eta, interbentzio psikohezitzailean emozioek garrantzi handia hartuko dute eta hauek lantzeko gorputz adierazpena tresna egokia denez (Azpeitia, 2015), proposamena gorputz adierazpenaren bitartez egingo da. Justifikazio honi buruzko informazio gehiago irakurtzeko ikusi [5.1 JUSTIFIKAZIOA](#) atala.

Heriotza eta heriotza-dolua lantzeko zazpi saioko interbentzio psikohezitzailea proposatzen da. Lehenengo saioa, sarreratzat erabiliko da, ikasleak gaian kokatzeko, gaiari buruz dauzkaten ideak biltzeko eta gaia aurkezteko. Saio hau garrantzitsua izango da ikasleen aurreiritziak identifikatzeko eta gainontzeko saioetan haiekin amaitzeko aukera izateko.

Hurrengo bost saioetan, jadanik gaia aurkeztuta egongo denez, Salmerok eta Valientek (2018) proposatzen dituzten heriotzaren ezaugarrietan oinarrituko dira; saihetsezintasuna, itzulezintasuna, gelditze-funtzionala, kausalitatea eta aplikagarritasuna. Ezaugarri bakoitza saio ezberdin batean landuko da, behar den sakontasunarekin landu ahal izateko. Hori ez ezik, ezaugarriekin jarraituko den ordena hauek ulertzeko adinarekin bat egiten du, ikasleen garapenean eta ezaugarriak ulertzeko gaitasunean oinarrituz (Castro, 2012; Kübler-Ross, 1973). Horrela, hurrek lehendabizi ulertzen duten ezaugarria landuko den lehena izango da, eta beranduen ulertzen dutena azkena. Horrela saioen arteko progresioa emango da, errazenetik zailenera joaten eta heriotzan pixkanaka sakontzen.

Heriotzaren ezaugarriak lantzeko bost saioak amaitzean, azkenengo saioa baino ez da faltako. Behin heriotza ulertzen dela, Kübler-Rossek (1973) esaten duen bezala, ikasleak heriotza-dolua lantzeko prest egongo dira eta hori da, hain zuzen ere, azken saio honetan egingo dena. Heriotza-doluan zehar agertzen diren emozioak ikasleei aurkeztuko zaizkie, heriotza-dolua pairatzean sentitzen dutena uler dezaten. Saio honetan zehar, ikasleek heriotza-doluaren fase ezberdinak ulertzeko interpretazio txikiak egingo dituzte eta emozioen lanketa egingo dituzte, proposamen guztian bezala gorputz adierazpenaren bidez.

Jarraitzeko, saio guztietan errutina batzuk jarraituko direla aipatzerik dago. Saio bakoitzarekin hasteko, ikasleen eta irakasleen arteko elkarrizketa txiki bat emango da. Honi esker, ebokazioa emango da; hau da, ikasleek aurreko saioetan landutakoa gogoratuko dute, ikaskuntza esanguratsua bermatuz. Saioarekin amaitu baino lehen, antzeko prozesua jarraituko da, ikasleen eta irakaslearen arteko elkarrizketa emango delako. Honetan, saioan zehar landutakoaz hitz egingo da, ikasleek egindako jardueren eta edukien arteko lotura egin dezaten eta aurreiritziekin amaitzeko.

Saioak heriotza eta heriotza-dolua tratatzeko Sánchezek (2019) azaldutako hirugarren metodologian oinarrituko dira, heriotzak ikasleen hazte kognitibo eta emozionalean eragin positiboa daukalako. Metodologia honen arabera, hurrekin heriotzaz hitz egitea ezinbestekoa da, heriotzaren ezaugarriak aurkeztuz eta ulertuz. Horri esker, heriotza ulertzeko gaitasunak garatuko dituzte eta horrela heriotza-dolua kudeatzeko gai izango dira, heriotza zer den ulertzen dutelako. Prozesu honetan, ikasleek empatia eta laguntza eskaintzen dien pertsona bat beharko dute, kasu honetan, irakaslea.

Amaitzeko, hurrengo taularen bidez interbentzio psikohezitzailearen kronograma aurkezten da. Taulan saioen banaketa, saioen izenburua eta saioetan landuko den laburpena aipatzen da, hori baita interbentzio-psikohezitzailearen oinarria. Hori ez ezik, saio guztiak 50 minutukoak izango direla aipatzerik dago.

Saioaren zenbakia	Saioaren izenburua	Zer landuko da?
1. saioa	Heriotza ezagutzen	Heriotzaren eta interbentzio-psikohezitzailearen aurkezpena.
2. saioa	Ezetz ekidin!	Saihetsezintasuna: Heriotza bai ala bai gertatzen da, ezin da ekidin.
3. saioa	Atzera joan gaitzezke?	Itzulezintasuna: Heriotza gertatzean, ez dago atzera joaterik, hildakoa ez da berriro bizitzera bueltatzen.
4. saioa	Bat, bi, hiru, geldil!	Gelditze-funtzionala: Gizakiok oinarrizko bizi-funtzioak egiteko gai ez garenean hiltzen gara.

5. saioa	Detektibeak gara!	Kausalitatea: Nahiz eta gehienetan heriotza zahartzaroarekin eta gaixotasunekin lotu, biolentzia edota istripuak ere zergatiak dira.
6. saioa	Guztiok berdin	Aplikagarritasuna: Guztiok, lehenago edo geroago, hilko gara.
7. saioa	Heriotza ezagutzen dugu	Heriotzaz ikasitako guztia gogoratzea eta heriotza-doluaren lanketa.

5.5 INTERBENTZIO PSIKOHEZITZAILEAREN PROPOSAMENA

5.5.1 Lehenengo saioa: Heriotza ezagutzen

Saio honetan, lehenengoa dela kontuan izanda, helburu nagusia ikasleek heriotzari buruz dauzkaten aurreiritziak jasotzea izango da. Hori ez ezik, heriotzaren aurkezpen txiki bat egingo da eta harekin erlazionatuta dauden emozioak identifikatuko dira. Horretarako jarduera ezberdinak egingo dira, ikasleek heriotzari buruz dakitena eta honek sorrarazten dizkien emozioak identifikatzeko nahiarekin.

Lehenik eta behin, ikasleek irakaslearekin elkarrizketa bat izango dute. Bertan, irakasleak hurrengo saioetan zehar heriotza lantzen arituko direla azalduko du eta ikasleei galdetegi bat banatuko die, haien hasierako jakintzak biltzeko helburuarekin. Ondoren, irakaslearen eta ikasleen arteko elkarrizketa berreskuratuko da. Irakasleak elkarrizketa galdera batzuen bitartez bideratuko du eta ikasleek emandako erantzunak apuntatuko ditu. Hasierako galdetegiak eta elkarrizketan lortutako erantzunek ikasleen aurreiritziak jasotzeko balioko dute. Horrela, irakasleak hasierako ebaluazioa egiteko gai izango da. (Ikusi [5.6 EBALUAZIOA](#) atala eta [E.2 HASIERAKO ETA AMAIERAKO EBALUAZIOA](#) eranskina).

Sarrera egin ondoren, jarduera nagusia gauzatuko da: ipuin motorra. Horretarako, haien gorputza ezinbesteko tresna izango da, *Mara* ipuina irakurtzen den bitartean ikasleek entzundakoa antzetzeko beharko dutelako. Jarduera hau Apezetxea-Gorrotxategi-k (2015) proposatutako *cuentos y películas* jardueran oinarrituta da. Hori egin ostean, hirugarren jarduera aurrera eramango da. Bertan, ikasleak ipuin motorrean zehar nabaritutako emozioak identifikatzen saiatuko dira, hausnarketa txikia bultzatuz.

Saioarekin amaitzeko, heriotzaz hitz egiteak, askotan, hunkipena edo deserosotasuna sortzen duenez, saioarekin amaitzeko deskonektatzeko ariketa bat egingo da (*Zer da hau?* jarduera), barrea erraz sortzen duena. Hau lehenengo saioan oso garrantzitsua izango da, ikasleek saioa sentsazio onarekin amaitzeko.

Jardueren azalpen zehatza ikusteko, ikusi *E.1.1 Lehenengo saioa: heriotza ezagutzen* eranskina.

5.5.2 Bigarren saioa: Ezetz ekidin!

Saio honen helburu nagusia heriotza saihetsezina dela ikasleei ulertaraztea izango da; hau da, heriotza ezin dela ekidin. Hori ez ezik, egingo diren bigarren eta hirugarren ariketetan, ikasleek taldetan estrategiak pentsatu beharko dituzte, talde dinamikak garatuz. Bestalde, hirugarren ariketan haien gorputzaz kontziente izan behar direnez, gorputz eskema ere landuko da.

Helburu hauek betetzeko, lehenik eta behin, aurreko saioa gogoratzeko elkarrizketa txikia egingo da, ondoren saioarekin hasteko. Elkarrizketari esker, ikasleek heriotzaren gaia berreskuratuko dute eta saioari sarrera txiki bat egingo diote.

Saioan egingo diren bigarren eta hirugarren jardueretan ikasleek pertsonaia ezberdinetan murgilduko dira. Pertsonaiekin bi harrapaketa-jolas ezberdin egingo dituzte, non harrapatua izatea saihetsezina den. Lehenengo jolasean, *armiarma* ikasleak euliak eta armiarmak irudikatu dituzte eta bigarrenean, robotak. Bigarren jolas hau Venner-ek (2003) proposatutako *Los sabios* jolasean oinarrituta dago. Honi esker, heriotzaren saihetsezintasuna irudikatu nahi da, bi jolasetan nahitanahiez harrapatuko direlako.

Ondoren, ikasleei mundutik bidaiatzen daudela eta izotz-puska bat zaindu behar dutela planteatuko zaie. Egoera ezberdinak aurkeztuko zaizkie eta beraiek egoera interpretatu beharko dute, izotza beti eskuan izanda. Saioan zehar, izotza urtzen joango da, hori ekiditea ezinezkoa delako. Hau ere heriotzaren saihetsezintasuna irudikatzen du, heriotza (izotz-puska urtzea bezala) saihetsezina delako.

Saioarekin amaitzeko, guztiak borobilean bilduko dira jarduera guztietan egondako egoera saihetsezinez jabetzeko eta heriotzarekin lotzeko. Elkarrizketa honetan, ikasleen parte-hartzea eta haien gogoeta bultzatzea ezinbestekoa izango da, irakaskuntza-esanguratsua emateko. *Armiarma* eta *robotak harrapaketan* harrapatua izatea saihetsezina dela ikasleei ikusaraziko zaie eta *mundua ezagutzen* jardueran izotza beti urtzen dela ere;

heriotzarekin erlazionatuz. Bestalde, irakasleak haurrek elkarbanatzen dituzten emozioak entzutea eta komentatzea garrantzitsua izango da.

Saio honen jardueren deskribapen zehatza ikusteko, ikusi E.1.2 Bigarren saioa: Ezetz ekidin! eranskina eta, ebaluazioa ikusteko, ikusi 5.6 EBALUAZIOA atala eta E.3.1 Bigarren saioaren errubrika eranskina.

5.5.3 Hirugarren saioa: Atzera joan gaitzke?

Saio honen helburu nagusia heriotzaren itzulezintasuna ulertzea da; hau da, behin hilda ez dagoela bizitza berreskuratzetik. Hau lortzeko egingo diren jardueri esker, ikasleek gorputz kontzientzia garatuko dute eta lateralitatea eta espazioaren pertzepzioa landuko dute.

Saioarekin hasteko, irakasleak talde osoarekin elkarrizketa bat egingo du, aurreko saioan landutakoa (heriotzaren saihetsezintasuna) gogoratzeko eta heriotzaren gaian berriro murgiltzeko. Elkarrizketa irakasleak bideratuko du, baina, ikasleak protagonistak izango dira.

Elkarrizketaren bidez sarrera egin ostean, ikasleek lasterketa bat egingo dute, non ez izango duten atzera joan. Jarduera honekin bizitzan ezin dela atzera joan irudikatu nahi da, heriotzaren itzulezintasuna aurkezten joateko.

Ondoren eta atzera ezin joatearen ideiarekin jarraituz, *non nago?* jarduera burutuko da. Ikasle guztiek begiak itxiko dituzte eta zelaian kokatutako boluntario bat bilatu beharko dute, bakarrik aurrera edo alboetara joaten.

Saioarekin amaitzen joateko, taldetan mezu bat pasa beharko dute. Horretarako ezin izango dira mezua berriro irakurtzeko atzera joan. Gainera, erabiliko diren esaldiek pixkanaka heriotzaren itzulezintasuna aurkeztuko dute. Hau lortzeko boluntarioak soinuak egingo ditu.

Hurrengo jardueran, heriotzaren itzulezintasuna era zuzenago batean jorratuko da. Hori lortzeko, ikasleek, taldetan, irakasleak emango dizkien bost mezu transmititu beharko dituzte. Lehenengo mezua ez da heriotzarekin lotuta egongo, baina azkenengoa bai. Lotura hori progresiboa izango da.

Saioarekin amaitzeko, aurreko saioan bezala, ikasle guztien arteko gauzatuko da. Honetan, aurreko jardueran erabilitako esaldiak oinarritzat hartuko dira eta gainontzekoen jardueren metafora azalduko da (ezin zuten atzera joan, bizitzan ezin dugulako atzera joan ezta gertatutakoa desegin, heriotza bezala). Elkarrizketan, ikasleen parte-hartzea eta haien gogoeta bultzatzea ezinbestekoa izango da, irakaskuntza-esanguratsua emateko. Horregatik,

ikasleen ideiak entzungo dira eta irakasleak dinamizatzailerak baino ez izatea gomendatzen da. Bestalde, haurrek elkarbanatzen dituzten emozioak entzutea eta komentatzea garrantzitsua izango da.

Saioaren jardueren azalpen sakona ikusteko, ikusi [E.1.3 Hirugarren saioa: Atzera joan gaitzke?](#) eta ebaluazioa egiteko ikusi [5.6 EBALUAZIOA](#) atala eta [E.3.2 Hirugarren saioaren ebaluazioa](#) eranskina.

5.5.4 Laugarren saioa: Bat, bi, hiru, geldi!

Laugarren saioaren helburu nagusia heriotzak gelditze-funtzionala dakartzala ulertzea da. Hori lantzeko, jarduera ezberdinak egingo dira eta horien bidez beste helburu batzuk ere landuko dira; hala nola, norberaren gorputza ezagutzea, sormena sustatzea eta gaitasun erritmikoa garatzea.

Saio hau, aurrekoak bezala, elkarrizketa batekin hasiko da. Bertan heriotzaren saihetsezintasuna eta itzulezintasuna gogoratuko da (aurreko saioetan landutakoa), gaia berreskuratuz. Ikasleek bi ezaugarriak zer suposatzen duten gogoratuko dute eta, hori egitean, saioarekin hasteko prest egongo dira.

Elkarrizketa amaitzean, bizitzaren zikloa lantzen duen jarduera bat proposatuko da, *beste begiekin ikusiz* izenekoa. Bertan ikasleek, adin ezberdineko pertsonengan bihurtuko dira eta beraiek bezala espaziotik mugitu beharko dira. Jaio berri den pertsona baten begiekin hasiko dira, adineko pertsona baten begitara heldu arte. Pertsonaia ezberdinak irakasleak proposatuko ditu. Jarduera honi esker, ikasleek pertsonen hazte prozesua interpretatuko dute eta bizi-zikloa landuko dute.

Hurrengo bi jarduerak bihotz taupadekin eta arnasketarekin lotuta daude. Bihotz taupadak lantzeko, irakaslea atabera batekin erritmo ezberdinak markatuko ditu, bihotza izango balitz bezala. Arnasketa lantzeko, berriz, ikasleek arnasketa ezberdinak binaka egingo dituzte, arnasketaz kontziente izateko. Bi jarduera hauei esker, zirkulazio eta arnasketa aparatuek landuko dira, hiltzean gelditzen direnak.

Saioarekin amaitzeko, aurrekoetan bezala, elkarrizketa bat egingo da. Bertan, jardueren metaforak landuko dira heriotza gelditze-funtzionala dakarrela azalduz. Pertsonen zahartze prozesua azalduko da eta zirkulazio eta arnasketa aparatuek landuko dira, guztia heriotzarekin lotuz. Horrekin batera, hurrengo saioa aurkezpen txikia egingo da, pertsona batzuk zahartzarora heldu baino lehen hiltzen direla eta horren kausak hurrengo saioan landuko dituztela azalduz. Gainontzeko saioetan bezala, amaierako elkarrizketan ikasleen

parte-hartzea eta gogoeta bultzatzea ezinbestekoa izango da, irakaskuntza-esanguratsua emateko. Bestalde, haurrek elkarbanatzen dituzten emozioak entzutea eta komentatzea garrantzitsua izango da.

Laugarren saioaren jardueren azalpen zehatza ikusteko, ikusi E.1.4 Laugarren saioa: Bat, bi, hiru, geldi! eranskina eta, ebaluazioa egiteko, 5.6 EBALUAZIOA atala eta E.3.3 Laugarren saioaren ebaluazioa eranskina.

5.5.5 Bostgarren saioa: Detektibeak gara!

Saio honen helburu nagusia heriotzaren kausalitatea ikasleei ulertaraztea izango da; hau da, heriotza ez dela bakarrik zahartzaroarekin heltzen, hamaika kausa izan dezake. Ideia hori lantzen den bitartean, hitzik gabeko komunikazioa, interpretazio sorkuntza txikiak egiteko ahalmena eta talde lana zein ikasleen arteko akordioak lantzea helburua ere garatuko da.

Saio guztietan bezala, lehenik eta behin guztien artean sarrera txiki bat egingo da, aurreko saioetan landutakoa gogoratzeko. Zehazki aurreko saioetan landutako heriotzaren saihetsezintasuna, itzulezintasuna eta gelditze-funtzionala gogoratuko da.

Heriotzaren kausalitatea lantzeko bi jarduera egingo dira, non interpretazioa ezinbestekoa izango den. Bi jarduera hauek Apezetxea-Gorrotxategik (2015) proposatutako *dramatización* jardueran oinarrituta daude. Lehenengo jardueran, *egoerak bilatzen* izenekoak, ikasle bakoitzak irakasleak esandako egoera ezberdin bat errepresentatuko du, hitzik erabili gabe. Egiten duten interpretazioari esker, egoera berdina errepresentatzen dauden ikasle guztiak bilatu beharko dituzte, talde txikiak sortuz. Bidalitako egoerak heriotza sor dezaketen egoerak izango dira.

Behin taldeak eginda daudela, 1-2 minutuko interpretazio txikia sortu beharko dute, guztien aurrean egiteko. Interpretazioa egitean, gainontzekoek zein egoera aurkeztu duten asmatu beharko dute eta egoera bakoitzarekin hausnartzeko momentuak bultzatuko dira, amaierako elkarrizketa jarduera honekin batera lotuz. Honetan, haurrek elkarbanatzen dituzten emozioak entzutea eta komentatzea ezinbestekoa izango da.

Saio honen jardueren azalpen zehatza ikusteko ikusi E.1.5 Bostgarren saioa: Detektibeak gara! eranskina eta, ebaluazioa egiteko, ikusi 5.6 EBALUAZIOA atala eta E.3.4 Bostgarren saioaren ebaluazioa eranskina.

5.5.6 Seigarren saioa: Guztiok berdin

Saio honen helburu nagusia ikasleei heriotzaren aplikagarritasuna ulertaraztea da. Hau da ulertzen duten azkenengo ezaugarria, beraz, ulermena zailagoa izan daiteke. Helburu honekin batera, proposatzen diren jarduerak direla eta, beste helburu batzuk ere landuko dira: taldearen eta norbanakoaren erritmoak ezagutzea, talde dinamika lantzea eta gaitasun erritmikoa garatzea.

Helburuak lantzeko hiru jarduera ezberdin erabiliko dira, non pixkanaka-pixkanaka ikasle guztiak eliminatuko diren. Eliminazioak heriotzaren metaforak izango dira, guztiok hiltzen gara egingo diren jardueran guztiak eliminatzen diren bezala.

Jarduerekin hasi baino lehen, aurreko saioetan bezala, irakaslearen eta ikasleen artean elkarrizketa bat egingo da, aurreko saioak eta jadanik landu diren heriotzaren ezaugarriak gogoratzeko (saihetsezintasuna, itzulezintasuna, gelditze-funtzionala eta kausalitatea).

Behin ikasitakoa gogoratuta, jarduera ezberdinak gauzatuko dira. Lehenengo jardueran, *estatuak gara*, musika jarriko da eta ikasleek haren erritmorik espaziotik aske mugitzen egongo dira. Musika gelditzean, ikasleak estatuak bilakatuko dira. Ikasleren bat mugituz gero eliminatuko da, heriotzaren metafora aplikatuz.

Hurrengo jardueran, *ehiztariak eta untxiak*, hiru harrapatzaile egongo dira eta gainontzekoak harrapatzen saiatuko dira, berriz ere guztiak eliminatzeko. Untxi guztiak harrapatzean, ehiztarien artean harrapatuko dira. Honetan ere musika erabiliko da eta musika dagoen bitartean ehiztariak ezin izango dute untxiak harrapatu. Jarduera hau Vennerek (2003) proposatutako *los cazadores* jardueran oinarrituta dago.

Jarduerekin amaitzeko eta amaierako elkarrizketa egin baino lehen, *memory* izeneko jarduera egingo da. Ikasle batek erritmo bat gorputzarekin sortuko du eta hurrengoak erritmo hori errepikatuko du eta berak sortzen duen beste bat gehituko du. Dinamika hori norbait okertu arte jarraituko da. Norbait okertuz gero, aurreko jardueretan bezala, eliminatuko da eta jolasa berriro hasiko da.

Saioarekin amaitzeko, berriro elkarrizketarako gunea emango da. Bertan, jardueren eta heriotzaren aplikagarritasunaren arteko lotura jorratuko da, ikasleen emozioei atentzio berezia emanez. Hiru jarduera nagusietan, nahitanahiez ikasle guztiak eliminatzen ziren, arau hori guztiei aplikatzen baitzitzaien, heriotza bezala.

Azkenik, saio honekin, ikasleek heriotza ulertzeko lanketa osoa eginda dutela aipatzerik dago eta, heriotza-dolua lantzeko prest egongo direla. Hori da, hain zuzen ere, hurrengo saioan egingo dena.

Jardueren azalpen zehatza ikusteko, ikusi E.1.6 Seigarren saioa: Guztiok berdin eranskina eta ebaluazioa egiteko ikusi 5.6 EBALUAZIOA atala eta E.3.5 Seigarren saioaren ebaluazioa eranskina.

5.5.7 Zazpigarren saioa: Heriotza ezagutzen dugu

Jarduera honen helburu nagusia ikasleek heriotza-doluan zehar agertzen diren fase ezberdinak ezagutzea da, emozioen lanketa eginez. Horrela, egoera ematen den momentuan, bizitzen diren emozioak ulertuko dituzte, haien kudeaketa erraztuz. Helburu nagusi hau ez ezik, hitzik gabeko komunikazioa taldetan lantzea eta espazio pertzepzioa garatzea helburuak landuko dira.

Saioarekin hasteko, aurrekoetan bezala, elkarrizketa bat sortuko da, aurretik landutako guztia gogoratzeko; hau da, heriotzaren bost ezaugarriak gogoratzeko (heriotzaren saihetsezintasuna, itzulezintasuna, gelditze-funtzionala, kausalitatea eta aplikagarritasuna). Horrekin batera, jarduerak gauzatu baino lehen, heriotza-doluaren aurkezpen txikia egingo da, definizio txiki bat eginez.

Behin gaia aurkeztuta, heriotza-doluan sentitzen diren emozioak musikaren bitartez aurkeztuko dira, *musika sentitzen* jardueraren bitartez. Horretarako, musika jarriko da (ikusi E.4 MUSIKA SENTITZEN JARDUERAREN MUSIKA eranskina) eta ikasleek musikak transmititzen dienaren arabera espaziotik mugituko dira. Amaitzean, ikasleei musika bakoitzak zer transmititu dien galdetuko zaie eta norbait hiltzean pertsonak emozio horiek sentitzen dituztela azalduko zaie, jarduera zuzenean heriotza-doluarekin lotuz.

Egingo den bigarren jardueran, ikasle bakoitzak norbait hiltzean sentitzen duena errepresentatuko du. Horretarako, espaziotik mugitzen egongo dira eta irakasleak *ya esatean*, ikasleek elkar agurtuko dute norbait hiltzean sentitzen dutena interpretatuz. Amaitzean, guztien arteko hausnarketa gunea bultzatuko da, zer sentitzen duten eta zergatik sentitzen duten ikasleei galdetuz. Horrela, heriotza-dolua bakoitzak modu batean bizitzen duela azalduko da, nahiz eta patroia bat egon.

Saioarekin amaitzeko, ikasleak bost taldetan banatuko dira eta talde bakoitzari heriotza-doluaren fase bat egokituko zaio, azalpen txiki batekin batera. Taldeetan, fase hori aurkezteko obra pieza txikia sortu beharko dute, itzal txinatarrekin. Talde bakoitzak

gainontzekoei aurkeztean, irakaslearekin batera fasea ondo azalduko da eta guztien artean komentatuko da, ikasleen emozioei eta hunkipenei arreta jarriz. Jardueran hau Apezetxea-Gorrotxategik (2015) proposatutako *dramatización* jardueran oinarrituta dago.

Saio hau amaitzean, ez da amaierako elkarrizketarik egongo, jarduera bakoitza amaitzean hausnartzeko momentuak bultzatuko direlako. Gainera, azken saio honetan, ikasleei sentitzen dutenari buruz galdetuko zaie, haien emozioak identifikatzeko eta elkarbanatzeko.

Saio honetan, zehaztasun handiz 5.6 EBALUAZIOA atalean aipatzen den bezala, amaierako ebaluazioa (ikusi E.2 HASIERAKO ETA AMAIERAKO EBALUAZIOA eranskina) egingo da. Horri esker, irakasleak ikasleek interbentzio psikohezitzailearen hasieran eta amaieran dauzkaten ideak alderatzeko aukera izango du, proposamenaren erabilgarritasuna ebaluatzeko. Hori ez ezik, saioan zehar ikasleak ere ebaluatuko dira (ikusi 5.6 EBALUAZIOA atala eta E.3.6 Zazpigarren saioaren ebaluazioa eranskina).

Saio honen jardueren azalpen zehatza ikusteko, ikusi E.1.7 Zazpigarren saioa: Heriotza ezagutzen duqu eranskina.

5.6 EBALUAZIOA

Interbentzio psikohezitzailean zehar, irakasleak hasierako, erdiko eta amaierako ebaluazioak gauzatu ditu. Hasierako eta amaierako ebaluazioak berdinak izango dira, interbentzioa aurrera eraman baino lehen eta aurrera eraman ondoren ikasleek emandako erantzunak alderatu ahal izateko eta saioen erabilgarritasuna frogatu ahal izateko (Astorga-Álvarez, 2020). Bestalde, gainontzeko saioetan zehar, ikasleei erdiko ebaluazio bat egingo zaie, saioan nola aritu diren aztertuz.

Esan bezala hasierako eta amaierako ebaluazioa berdina izango da eta galdetegi eta elkarrizketa baten bidez egingo da, interbentzio psikohezitzailearen erabilgarritasuna aztertu ahal izateko. Lehenik eta behin ikasleek indibidualki galdetegi bat beteko dute, heriotzari buruz dauzkaten ideiak bilduko dituen (ikusi E.2.1 Galdetegia eranskina). Ondoren, irakasleak ikasle guztien artean elkarrizketa bat bideratu du. Horretarako Sánchez-Aguilar eta al.-ek (2021) proposatutako galderak erabiliko ditu eta ikasleek ematen dituzten erantzunak apuntatuko ditu (ikusi E.2.2 Elkarrizketarako galderak eranskina).

Hasierako eta amaierako ebaluazioa egin ondoren, irakasleak bietan lortutako erantzunak alderatuko ditu, ikasleek interbentzio psikohezitzaileari esker heriotzaz zenbat ikasi duten aztertzeko eta saioen erabilgarritasuna frogatzeko.

Erdiko ebaluazioa saio guztietan zehar egingo da, saioan zehar egindakoa ebaluatzeko, ebaluazio bat saio bakoitzeko eginez. Irakasleak saio bakoitzari egokitutako errubrikak jarraituko ditu eta haiei esker ikasleen prozesua ebaluatu ahalko du. Errubrika horiek Apezetxea-Gorrotxategik (2015), Lapaz-Fernández, (2019) eta Astorga-Álvarezek (2020) proposatutako ebaluazioetan oinarrituta daude, baina saio bakoitzari egokituz. Ebaluazioa saioan zehar egitea gomendagarriena da, baina, ikasleak ondo behatuz gero, irakasleak saioa amaitu ondoren minutu batzuk eskaini ditzake ebaluazioa ondo betetzeko. Saioetan zehar jarraitu beharreko errubrikak ikusteko ikusi [E.3 ERDIKO EBALUAZIOA](#) eranskina.

Hiru ebaluazio hauei esker, ikasleek egindako lana ez ezik, interbentzio psikohezitzailearen erabilgarritasuna ebaluatzea bilatzen da. Gainera, ikasleak saio guztietan zehar ebaluatzean, jarraitu duten ikaskuntza prozesua aztertzei aukera dago. Hurrengo figuraren bidez, egin beharreko ebaluazioa azaltzen da, borobil horiak hasierako eta amaierako ebaluazioa izanik eta urdinak erdikoak.



6. ONDORIOAK

Proposatutako interbentzio psikohezitzailea ikasleentzat zein familientzat onuragarria izan daiteke. Proposatutako saioak aurrera eramateak ikasleek heriotzaz ikasteko aukera ematen du eta, horren ondorioz, ikasleek horrelako egoera bizitzen dutenean prest egotea ahalbidetzen du. Prebentzio lana ez ezik, heriotza hurbil pairatu duten ikasleengan ere onurak izan ditzake. Ikasle horiei gertatutakoaren ulermena erraz diezaieke eta, beraz, heriotza-dolu arinago bat izaten lagundu dezake.

Aipatu bezala, ikasleengan ez ezik familiengan ere onurak izan ditzake. Askotan, familiek ez dakite heriotza haurrei nola aurkeztu eta, hori dela eta, estereotipoez eta ideia okerrez baliatzen dira (Kübler-Ross, 1973). Eskolan heriotza lantzeak egoera horiek ekiditen laguntzen du eta, gainera, ikasleek irakasleekin batera lantzean, lanketa zuzena ematen dela bermatzen da.

Lehen Hezkuntzan heriotza lantzean, irakasleek egoera ezberdinen aurrean egon daitezke. Ikasle batzuk heriotza hurbil bizi izango dute eta beste batzuk, berriz, ez dira inoiz egoera horretan egon. Hori dela eta, ume bakoitzak edukiak ulertzeko beharko duen denbora ezberdina izango da (Castro, 2012) eta, gainera, ikasleren batek hurbileko heriotzaren bat duela gutxi pairatu badu, hunkituta egon daiteke eta, beraz, interbentzio hezitzailea aurrera eramatean laguntza emozionala beharko du. Baina, ikasle horiek dira, hain zuzen ere, interbentzio psikohezitzailetik onura gehien lortu ditzaketenak (Sánchez, 2019).

Honekin lotuta, heriotza bizi edo biziko duten ikasleek haren lanketa egiteko behar handiagoa daukatenak dira (Kübler-Ross, 1973). Heriotza ikasleen ingurunera hurbiltzean edo agertzean, haren lanketa egitea ezinbestekoa da, haurra emozionalki eta kognitiboki prestatzeko eta ahalik eta heriotza-dolu normalen bat bizitzeko (Capodebilla, 2007). Baina ezin dira heriotzarekin kontaktua izan ez duten ikasleak ahaztu. Heriotza hurbil pairatzeak saihetsezina da eta, beraz, noizbaiten biziko dute, nahitanahiez. Hori dela eta, proposatutako interbentzio psikohezitzailea aurrera eramatean, ikasle horiekin prebentzio lana egingo da, ere garrantzitsua dena egoera heltzean prestatuta egoteko (Kübler-Ross, 1973).

Heriotzaren lanketa zuzena egin ezean, heriotzaren ulermen eza edo heriotza-doluaren kudeaketa desegokia eman daiteke (Sánchez, 2019). Hori dela eta, gradu amaierako lan honen bidez haren lanketaren garrantzia irudikatzen da. Gainera, irakasleek ikasleekin gaia lantzean, askotan egiten ez den lanketa pertsonala egingo dute, heriotzaz hausnartzu eta pentsatuz.

Ideia hauek oinarritzat hartuta, heriotza ikasleen ingurunera gerturatu baino lehen gaia lantzeko momentu egokiena dela esaterik dago (Kübler-Ross, 1973). Horrela hunkipen maila ez da zertan altuegia izan behar eta interbentzio psikohezitzailea aurrera eramateko giro egokia emango da. Hala ere, ikasleen ingurunean heriotza agertuko dela jakitean, haren lanketa ezinbestekoa dela esaterik dago (adibidez ikasle edo gurasoren bat gaixotasun larriren bat badauka). Egoera hori ematen bada, ahalik eta lasterren interbentzio psikohezitzailea martxan jartzea gomendagarriena da, etorkizunean zailtasunak ekiditeko (Sánchez, 2019) eta heriotzarako ahalik eta prestatuen egoteko.

Heriotza eta heriotza-doluaren lanketa ezinbestekoa izan arren, askotan oso zaila izan daiteke errealitatean aurrera eramatea. Horrelako proposamen didaktikoak aurrera eramateko, ikasleen arteko giro egokia ezinbestekoa da, non ikasleek haien sentimenduz hitz egiteko konfiantza daukaten (Castillo eta Rebollo, 2009). Baldintza hau ez da eskola guztietan ematen eta, horregatik, askotan ezingo da gai hau era zuzenean jorratu.

Beste aldetik, proposamena martxan jartzean, irakasleen jarrera oso garrantzitsua da. Heriotza eta heriotza-dolua naturaltasunez tratatu behar dute, ez tabu bat bezala (Sánchez, 2019). Horrela, ikasleek gaia era egokian lan dezakete, irakasleek bezala naturaltasunez hartuz. Gainera, ikasleak interbentzio psikohezitzailean zehar seguru sentitzeko, irakasleek haien konfiantza izan beharko dute, ikasleak haien sentimenduz haiekin hitz egiteko aukera izateko.

Naturaltasuna eta konfiantza ez ezik, irakasleek heriotza eta heriotza-doluaren teoria ezagutzea ezinbestekoa da. Teoriak ikasleei ideia zuzenak transmititzea ahalbidetuko du eta, horrekin batera, gai hauek era zuzen batean lantzea; ikasleen aurreiritziekin amaituz (Kübler-Ross, 1973). Teoriari esker, irakasleek ikasleen hazte kognitiboa eta emozionala aztertzekeo gai izango dira, ikasleek heriotzarekiko daukaten jarreraren ebaluazioa ahalbidetuz. Irakasleek teoria ezagutzea ezinbestekoa izan arren, ikasleek ezagutzea ez da hain garrantzitsua. Irakasleek marko teorikoa menperatu beharko dute, edozein egoeraren aurreran erantzun bat emateko ahalmena izateko. Ikasleek, berriz, heriotza eta heriotza-dolua zer den eta nola bizitzen dugun ulertzeko ideia nagusiak izatearekin nahikoa da (Castro, 2012), ezagutza teoriko zehatzak lanketa sakona behar dutelako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek ez daukatelako horretarako gaitasun kognitiborik.

Aipatutako gakoak jarraituz gero, ikasleengan onurak lor daitezke. Hau da, ikasleek heriotza eta heriotza-dolua zer den ulertuko dute eta egoera hori bizitzean, prestatuta egongo dira, heriotza-dolu normala bizitzeko aukerak handituz (Capodebilla, 2007). Hala ere,

naturaltasunez jorratzea, ikasleen eta irakasleen arteko konfiantza bermatzea edo marko teorikoaren ezagutzaren gakoak jarraituz gero, hainbat oztopo aurki daitezke.

Oztopo nagusia gizartean finkatutako heriotzarekiko tabua da. Hori dela eta, ikasle zein irakasle askok interbentzio psikohezitzailea lotsarekin landuko dute. Horrek proposamenetik atera daitezken onura kopurua murriz ditzake, ikasleek amaieran lor ditzaketan ezagutzak baldintzatuz. Heriotza tabu bat izateak familia batzuk haren lanketa egitearen aurka egotea suposatuko du, irakaslearen lana zailduz. Kasu horiek ekiditeko, interbentzio psikohezitzailea aurrera eramatean, familia guztien nahiak eta kulturak errespetatu beharko dira, heriotzarekiko egon daitezkeen sinesmenak proposamenetik kanpo utziz. Horrela, heriotza eta heriotza-doluaren lanketa objektiboa egin daiteke, ikasleen hazte kognitibo eta emozionala osatuz.

Oztopo hauek egon arren, ikasleengan eboluzio bat ikustea posiblea da. Irakasleen inplikazioa altua izanez gero, ikasleen inplikazioa ere altua izango da eta, horri esker, heriotzaz ikasteko aukera aprobetxatuko dute, benetan hura ulertzen. Horrela, proposamenaren helburu nagusia bete daiteke. Bestalde, nahiz eta familien inplikazioa helburua lortzeko garrantzitsua izan eta prozesuan asko lagundu, aurretik aipatu den bezala, familia batzuen jarrerak heriotzaren lanketa oztopatuko dute. Baina, hala ere, irakasleek eskolan egindako lanketak helburua betetzea ahalbidetu dezake. Helburua betetzean, aurretik zegoen heriotzaren lanketa ezaren egoerari buelta eman dakioke, heriotzaren ulermena bermatuz (Sánchez, 2019).

Gradu amaierako lan honen bidez proposatutako interbentzio psikohezitzailea heriotza eta heriotza-dolua gorputz adierazpenaren bitartez lantzeko prestatuta dago. Hori dela eta, hezkuntza formalean Gorputz Hezkuntzako irakasgaien aurrera eraman daiteke (Larraz, 2008). Hala ere, gainontzeko irakasgaietan gai hauen lanketa eginez gero, ikasleek egingo luketen lanketa sakonagoa izango litzateke eta, beraz, lortuko lituzketen emaitzak hobeak eta osoagoak (Echeverría, 2014). Horretarako, adibidez, Natur Zientzietan, heriotzaren lanketa biologikoa egin ahalko zen, hizkuntza ezberdinetan gaia lantzen duten hainbat liburu irakurri edota Arte irakasgaien heriotza adierazteko hainbat artelan landu; besteak beste. Horrela, heriotza eta heriotza-doluaren lanketa osoa lortuko litzateke.

Proposatutako heriotzaren eta heriotza-doluaren lanketa eginez gero, ikasleek heriotzaz dauzkaten ezagutzak era zuzenean osatuko litzateke, proposamenaren garrantzia eta erabilgarritasuna frogatuz. Heriotzaren lanketa egokiak haren trataera zuzena ahalbidetzen du, heriotza-dolua pairatzen duten pertsonen egoera erraztuz eta normalizatuz (Kübler-Ross, 1973).

7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Gradu amaierako lan honen mugak eta proposamenak aipatzean, lehenik eta behin, muga nagusia aipatzerik dago. Lanean zehar proposatzen den interbentzio psikohezitzailea ezin izan da aurrera eraman lana egin bitartean egondako eskolan ez baitzegoen martxan jartzeko aukerarik. Aurrera eramateko aukera ez izateak proposatutako interbentzio psikohezitzailearen erabilgarritasuna frogatzea ezinezkoa egin du. Hori dela eta, lanean zehar aipatutako ondorioak teoriatik ateratakoak dira, ezin izan delako errealitatean aztertu.

Muga hau kontuan hartuta, lana hobetzeko lehen proposamena aurkez daiteke. Aurkeztutako interbentzio psikohezitzailea eskola batean aurrera eramateak proposamenaren erabilgarritasuna aztertzeke aukera emango luke, lana osatuz eta ondorio zehatzagoak ahalbidetuz. Bestalde, errealitatean proposamena aurrera eramatean, planteatutako jarduerak kritikotasunez aztertzea ahalbidetuko luke, ikasleek proposamenarekiko daukaten jarrerak behatuz eta horiei egokitzeko aldaera ezberdinak proposatuz.

Beste muga batekin jarraitzeko, proposamena errealitatean aurrera eramateko zailtasunak aipatzerik daude. Interbentzio psikohezitzailea Gorputz Hezkuntzako saioetan aurrera eramateko prestatuta dago, baina, irakasgai horretan jarraitu beharreko curriculum bat dago. Irakasleek curriculumarekin bete behar dute eta, askotan, ez daukate hura betetzeko denbora nahikorik. Hori dela eta, kasu askotan nahiko zaila izango litzateke interbentzio psikohezitzailea aurrera eramateko zazpi saio aurkitzea, curriculumarekin betetzeko dauden saioen murrizketa suposatuko lukeelako. Honengatik, curriculumarekin interbentzio psikohezitzailea aurrera eramateko muga bat izan daiteke, irakasleek ez dutelako curriculumetik at dauden jarduerak egiteko denbora nahikorik.

Mugekin amaitzeko, irakasleek heriotza eta heriotza-doluarekiko izan dezaketen jarrera muga bat suposatu dezakeela aipatzerik dago. 6. ONDORIOAK atalean aipatu den bezala, gizartean heriotzarekiko tabu handia dago eta horrek pertsona asko gaia lantzen deserroso sentiarazten ditu. Interbentzio psikohezitzailea aurrera eramateko, heriotza eta heriotza-doluaren gaia naturaltasunez tratatu behar da (ikasleek horrela ere tratatzeko) eta irakasleek ez badute hori bermatzen, gaien lanketa mugatuta ikusiko daiteke (Sánchez, 2019).

Beste aldetik, jadanik aipatutako lehen hobekuntza proposamenarekin batera, beste batzuk daude. Lehenik eta behin, 6. ONDORIOAK atalean aipatu den bezala, proposamena osatzeko gainontzeko irakasgaietan heriotza eta heriotza-doluaren lanketa ere egitea gomendagarria da. Horretarako, hizkuntza ezberdinetan gai hauek tratatzen dituzten testuak landu daitezke edota Natur Zientzietan bizi-zikloaren lanketa egin. Honi esker, gaia

sakontasun handiago batekin landuko litzateke, hezkuntza esanguratsuago bat lortuz; irakasgai ezberdinetan gai berdina jorratzeak ezagutza osoago bat ahalbidetzen duelako (Echevarría, 2014).

Gainontzeko irakasgaietan ez ezik, proposatutako interbentzio psikohezitzailea hobetzeko, ildo berdina jarraitzen duen beste interbentzio psikohezitzailearen bat sor daiteke. Proposatutakoa heriotzaren ulermenean oinarritzen da eta, behin hori lortuta, heriotza-doluaren azaleko lanketa egiten daiteke. Proposatutako interbentzio psikohezitzailea aurrera eramanez, hurrengo pausoa heriotza-doluaren lanketa zehatza egitea izango litzateke (Kübler-Ross, 1973). Lanketa hau gorputz adierazpenaren bidez egiteko aukera ere dago eta hori etorkizuneko beste lan batean eginez gero, lan honetan proposatuagoa osatuko luke. Horri esker, heriotza eta heriotza-doluaren lanketa sakona eta osoa egingo litzateke (Kübler-Ross, 1973).

8. ERREFERENTZIAK

Apezetxea-Gorrotxategi, A. (2015). *El duelo en Educación Primaria: Propuesta de intervención*. [Gradu amaierako lana argitaratu gabea]. Universidad Internacional de La Rioja, Espainia.

Armemori. (2015). *Mi cuaderno de apoyo. Guía de ayuda al duelo*. Gráficas DEHON.

Astorga-Álvarez, P. (2020). *Propuesta de intervención didáctica para trabajar la muerte a través del huerto escolar en el segundo ciclo de Educación Infantil*. [Doktorego tesia argitaratu gabea]. Universidad a Distancia de Madrid, Espainia.

Azpeitia, O. (2015). *Gorputz adierazpena eta emozioak lantzen ikerkuntza-ekintzaren bidez: irakasle talde baten ibilbidea*. [Doktorego tesia argitaratu gabea]. Euskal Herriko Unibertsitatea, Espainia.

Echeburúa, E. eta Herrán, A. (2007). ¿Cuándo el duelo es patológico y cómo hay que tratarlo? *Análisis y modificación de conducta*, 33(147).

Echeverría, N. F. (2014). *Nola landu emozio eta behar afektiboak gorputz adierapenaren bidez*. [Gradu amaierako lana argitaratu gabea]. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Espainia.

- Cabodevilla, I. (2007). Las pérdidas y sus duelos. *Anales del sistema sanitario de Navarra* (3. bol, 163-176. orrialdeak). Nafarrako Gobernua. Osasun saila.
- Cano-Cárdenas, M. eta Herrera, N. V. (2019). Vida después de la muerte, prácticas religiosas y miedo: validación de una escala de creencias. *Integración Académica en Psicología*, 7(20).
- Castillo, E. eta Rebollo, J. A. (2009). Expresión y comunicación corporal en Educación Física. *Wanceulen E.F. Digital*, (05), 105-122.
- Castro, D. (2012). La muerte y el duelo en los niños. *Revista PUCE*, (93), 249-270.
- Coterón, J. eta Sánchez, G. (2010). Educación artística por el movimiento: la expresión corporal en educación física. *Revista de pedagogía de la universidad de Salamanca*, (16), 113-134.
- Kübler-Ross, E. (1973). *On death and dying*. Routledge.
- Kübler-Ross, E., eta Alcover, A. (1992). *Los niños y la muerte*. Luciérnaga.
- Lagardera, F. eta Lavega, P. (2011). Educación Física, conductas motrices y emociones. *Ethologie & Praxéologie*, 16(1), 23-43.
- Lapaz-Fernández, A. C. (2019). Propuesta didáctica para abordar la muerte en 5º de Primaria. [Gradu amaierako lana argitaratu gabea]. Universidad de Valladolid, Espainia.
- Lapiente, L. (2019). *La educación emocional a través de la expresión corporal*. [Gradu amaierako lana argitaratu gabea]. Universidad de Valladolid, Espainia.
- Larraz, U. (2008). Valores y dominios de acción motriz en la programación de educación física para la educación primaria. *Seminario Internacional De Praxiología Motriz*.
- Meza-Dávalos, E., García, S., Torres-Gómez, A., Castillo, L., Suárez, S. eta Martínez-Silva, B. (2008). El proceso del duelo. Un mecanismo humano para el manejo de las pérdidas emocionales. *Revista de Especialidades Médico-Quirúrgicas*, 13(1), 28-31.
- Martín, K. (2021). *Hezkuntza emozionala gorputz adierazpenaren bidez lantzeko proposamen didaktikoa*. [Gradu amaierako lana argitaratu gabea]. Euskal Herriko Unibertsitatea, Espainia.
- Real Academia Española. (2022). *Diccionario de la lengua española*. <https://dle.rae.es/duelo>

Salmero, C. eta Valiente, C. (2018). *Concepto de muerte y las emociones en el proceso de duelo en Educación Primaria*. [Gratu amaierako lana argitaratu gabea]. Universidad de Sevilla, Espainia.

Sánchez, C. (2019). *El trabajo del duelo y la muerte en Educación Primaria*. [Gratu amaierako lana argitaratu gabea]. Universidad de Sevilla, Espainia.

Sánchez-Aguilar, R., Bascaran, N., Díaz, S., Marín, M. eta Rodríguez, S. (2021). Intervención escolar sobre la muerte a partir del currículo español en educación infantil y primaria. *SUMMA. Revista disciplinaria en ciencias económicas y sociales*, 3(2), 1-19.

Venner, A.M. (2003). *40 juegos para la expresión corporal: de 3 a 10 años*. Octaedro.

ERANSKINAK

E.1 SAIOEN EGITURA

E.1.1 Lehenengo Saioa: Heriotza ezagutzen

Saioaren zenbakia: 1		Saioaren izenburua: HERIOTZA EZAGUTZEN	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Ikasleek heriotzari buruz dauzkaten aurreiritziak jasotzea, hurrengo saioak hauen arabera moldatzeko.• Heriotzaren aurkezpen bat egitea, gaia ikasleei aurkeztuz.• Heriotzaz hitz egitean agertzen diren emozioak identifikatzea.• Interpretazio-sorkuntza txikiak egitea		
1. jarduera: Elkarrizketa	Materiala	<ul style="list-style-type: none">- Irakasleak apuntatzeko orri edo koaderno bat eta boligrafo bat.- Ikasle bakoitzeko galdetegi eta boligrafo bana.	
Azalpena	<p>Irakaslea eta ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Irakasleak hurrengo egunetan zehar emozio ezberdinez eta heriotzaz hitz egiten ibiliko direla aipatuko du.</p> <p>Ondoren, ikasleei galdetegi bana banatuko die, era indibidualean bete dezaten.</p> <p>Amaitzean, elkarrizketa berreskuratuko da eta era natural eta gidatu batean irakasleak ikasleen ezagutzak jasoko ditu. Horretarako, irakasleak galdera batzuk egingo ditu eta ikasleek emandako erantzunak bilduko ditu. Honi esker hasierako ebaluazioa egingo da.</p> <p>Galdetegia eta galderak ikusteko ikusi <u>E.2 HASIERAKO ETA AMAIERAKO EBALUAZIOA</u> eranskina.</p>		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	10 minutu

2. jarduera: Mara ipuina antzezen		Materiala	Nerea Hernández-en <i>Mara</i> ipuina
Azalpena	Irakasleak <i>Mara</i> ipuina irakurriko du, poliki-poliki. Irakurri ahala, ikasleek istorioa antzeztuko dute. Antzezpena haien kabuz egingo dute, nahi duten pertsonekin elkartuz, baldintza bakarra isilpean egin behar dutela da. Irakasleak pausak egingo ditu, ikasleek antzezteko denbora izan dezaten.		
Taldekatzea	Librea	Denbora	20 minutu
3. jarduera: Emozioen txokoak		Materiala	Emozioen kartelak
Azalpena	Gimnasioko paretetik emozio ezberdinak adierazten dituzten kartelak jarriko dira: poza, tristura, amorrua, lasaitasuna, ezinegona... Irakasleak esatean, ikasle bakoitza ipuina entzutean sentitutako emoziora joango da. Ikasle guztiak emozio bate daudenean, sentitu dutena gainontzekoekin elkarbanatuko dute.		
Taldekatzea	Talde libreak	Denbora	10 minutu
4. jarduera: Zer da hau?		Materiala	Uztail, banku, pilota edota kono bat
Azalpena	Ikasle guztiak bi ilaratan banatuko dira, ilara bakoitza gimnasioko albo batean kokatuz. Bi ilaren erdian objektu bat jarriko da (uztaila, bankua edo pilota). Irakasleak txalo bat ematean, ilara bateko ikasle bat aterako da eta objektuarekin zerbait egin beharko du, objektuari erabilera bat emanaz. 3-5 segundo pasa ondoren, irakasleak beste txalo bat emango du eta beste ilarako ikasle baten txanda izango da. Ikasle guztiek hirutan egitean, erdiko objektua aldatuko da. Jarduera hau erritmo bizian egin behar denez, erritmo bizia daukan musika jartzea gomendagarria da.		
Taldekatzea	Bi ilara	Denbora	10 minutu

E.1.2 Bigarren saioa: Ezetz ekidin!

Saioaren zenbakia: 2		Saioaren izenburua: EZETZ EKIDIN!	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotza ezin dela saihestu ulertzea. • Talde dinamika lantzea. • Taldean estrategiak pentsatzea. • Gorputz eskema ezagutzea. 		
1. jarduera: Sarrera		Materiala	Ez da materialik behar.
Azalpena	Irakaslea eta ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Bertan, aurreko saioan landutakoa guztion artean gogoratuko dute, heriotzaren gaia berreskuratzeko.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	5 minutu
2. jarduera: Armiarma		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Ikasle bat armiarma izango da eta zelaiaren erdian jarriko da. Gainontzekoek (euliak), armiarmak esatean, zelai baten aldetik bestera pasa beharko dute. Armiarma, zelai erdiko marratik atera gabe, ahalik eta euli gehien harrapatzen saiatuko da. Norbait harrapatzean, harrapatutakoa armiarma bilakatuko da, guztiak armiarmak izan arte.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	10 minutu

3. jarduera: Robotak harrapaketan		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Ikasle batek robota izango da eta gainontzekoak harrapatzen ibiliko da. Horretarako, robotak imitatuz ibiliko da. Robotak norbait harrapatzean, pertsona hori robota bilakatuko da, guztiak robot izan arte. Ikasleek ezin izango dute korrika egiteko aukerarik, bakarrik ibiltzen joan daitezke.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	15 minutu
4. jarduera: Mundua ezagutzen		Materiala	Leku irekia (patioa), izotz-puskak
Azalpena	Ikasleei mundutik bidai bat egingo dutela azalduko zaie, baina, ez dute bakarrik bidaiatuko. Bakoitzak izotz-puska batekin bidaiatuko du eta oso ondo zaindu behar dute, ez urtzeko. Izotza eskuan izanda, irakasleak esaten dituen lekuetatik joango balira bezala ibili beharko dute. Adibidez: mendi bat igotzen, jendez beteta dagoen kale batetik, kobazulo estu batetik, desertutik, olatuetatik surfeatzen, harea mugikorretatik... Izotza guztiz urtzen bazaie lurrean eseriko dira, guztiak amaitu arte.		
Taldekatzea	Taldekatze librea	Denbora	5-10 minutu (izotz guztiak urtuta egon arte)
5. jarduera: Amaierako elkarrizketa		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Irakasle eta ikasle guztiak borobilean eseriko dira eta irakasleak elkarrizketa zuzenduko du. Honen bidez, armiarman euli izaten amaitzea, roboten jardueran harrapatua izatea eta azkenengoa izotza urtzea saihetsezina dela ikusaraziko die. Hau heriotzaren saihetsezintasunarekin lotuko du, jardueretan bezala heriotza ekidin ezin daitekeen zerbait dela ikasleei azalduz. Elkarrizketan ikasleen gogoeta bultzatuko dira, beraiek loturak egin ditzaten.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	10 minutu

E.1.3 Hirugarren saioa: Atzera joan gaitzke?

Saioaren zenbakia: 3		Saioaren izenburua: ATZERA JOAN GAITEZKE?	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotza itzulezina dela ulertzea. • Gorputz kontzientzia lantzea. • Lateralitatea lantzea. • Espazio pertzepzioa garatzea. 		
1. jarduera: Sarrera		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Irakaslea eta ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Bertan, aurreko saioan landutakoa guztion artean gogoratuko dute, heriotza saihetsezina dela gogoratuz.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	5 minutu
2. jarduera: Barraskiloen lasterketa		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Guztiak guztien kontra lasterketa bat egingo dute. Helburua espazioko alde batetik bestera ahalik eta mantsoen iristea da. Horretarako oso motel mugitu beharko dira, barraskiloak bezala. Norbait geldituz gero edo atzera mugituz gero, hilda egongo da eta irabazle bat egon arte lekuan eserita geratuko da.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	10 minutu
3. jarduera: Non nago?		Materiala	Begiak estaltzeko zapiak
Azalpena	Ikasle guztiak espazioko alde batean jarriko dira, ikasle bat izan ezik. Boluntario hori nahi duen lekuan jarriko da eta ezin izango ditu soinuak ezta mugimenduak egin. Gainontzekoek non dagoen gogoratuko dute eta begiak estaliko dituzte. Irakasleak seinale bat egitean ikasleak boluntariorik ahalik eta hurbilen geratzen saiatuko dira, baina, ezin izango dute inoiz atzera joan, bakarrik aurrera edo alboetara mugitu daitezke. Guztiak geldi egotean, begiak irekiko dituzte eta hurbilen dagoen ikaslea boluntario bilakatuko da, jarduera errepikatuz.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	5 minutu

4. jarduera: Mezulariak		Materiala	Paperak, boligrafoak eta esaldiak
Azalpena	<p>Talde bakoitzeko kideak ilara bat osatuko dute, ikasleen artean 5 metroko distantzia utziz. Lehenengo ikasleari paper bat emango zaio, esaldi batekin. Esaldia irakurri eta hurrengo ikaslearengana hurbilduko da, esaldia esateko. Bigarrenak hirugarrenari esango dio, azkenengo ikasleak mezua jaso arte. Azkenengoak jasotzean, esaldia paper batean idatziko du eta lehenengoak jarduera errepikatuko du hurrengo esaldiarekin. Baldintza bat egongo da, ikasleek ezin izango dute atzera bueltatu, hau da, ezingo dute aurreko ikasleari esaldia berriro galdetu. Hauek izango dira esaldiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mezulari onak izateko arretaz irakurri eta entzun behar dugu. - Mezua bidean apurtzen bada ez dugu berreskuratzerik. - Folio bat apurtzean, ezin dugu berriro haren forma originala lortu - Telebistan ez bezala, bizitzan ezin gara atzera bueltatu - Pertsona bat hiltzean ezin du berriro bizitza berreskuratu. 		
Taldekatzea	5 ikasleko taldeak	Denbora	15 minutu
5. jarduera: Amaierako elkarrizketa		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Irakasle eta ikasle guztiak borobilean eseriko dira eta irakasleak elkarrizketa zuzenduko du. Elkarrizketarekin hasteko, aurreko jardueran erabilitako azken hiru esaldiak irakurriko dira eta ikasleek haien pentsamenduak elkarbanatuko dituzte. Ikasleek esaldiak heriotzaren itzulezintasunarekin lotzea lortu ezean, irakasleak lotura egingo du, heriotzaren ezaugarri hau landuz. Hau ez ezik, bigarren, hirugarren eta laugarren jardueretan atzera joateko aukera ez zegoela gogoratuko da, bizitzaren metaforatzat hartuz.</p>		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	15 minutu

E.1.4 Laugarren saioa: Bat, bi, hiru, geld!

Saioaren zenbakia: 4		Saioaren izenburua: BAT, BI, HIRU, GELDI!	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotzak gelditze-funtzionala dakartzala onartzea. • Norberaren gorputza ezagutzea. • Sormena sustatzea. • Gaitasun erritmikoa garatzea. 		
1. jarduera: Sarrera		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Irakaslea eta ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Bertan, aurreko saioetan landutakoa guztion artean gogoratuko dute, heriotza saihetsezina eta itzulezina dela gogoratuz.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	5 minutu
2. jarduera: Beste begiekin ikusiz		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Ikasleek espaziotik era librean mugitzen hasiko dira, oinez eta lasai. Irakasleak gelditzeko esango du eta ikasleei metaforikoki begiak kentzeko, kutxa batean sartzeko eta beste begi batzuk jartzeko eskatuko die. Behin begi berriak izanda, pertsona horrek egingo lukeen bezala aritu beharko dira espaziotik. Hauek dira proposatuko diren begiak: jaioberria, 3 urteko haurra, 14 urteko nerabea, 25 urteko gaztea, gurasoak, aiton-amonak eta adineko pertsona. Pertsonai bakoitzean 1-2 minutu egongo dira.		
Taldekatzea	Banaka	Denbora	15 minutu

3. jarduera: Soinuekin bat		Materiala	Atanbora
Azalpena	Irakasleak atanbora bat izango du eta harekin erritmo ezberdinak sortuko ditu. Irakasleak ematen duen kolpe bakoitzarekin ikasleek pausu bat eman beharko dute, markatutako erritmoa jarraituz.		
Taldekatzea	Banaka	Denbora	5 minutu
4. jarduera: Nola arnasten dugu?		Materiala	Jogurt ontzi bana
Azalpena	Ikasleek binaka banatuko dira, bikote bakoitzak bi jogurt ontzi izanda. Bikoteko batek lurrean buruz gora etzango da eta jogurt ontzi bat tripan eta bestea bularrean jarriko du. Bikoteak arnasketa ezberdinak aginduko ditu eta jogurt ontziak nola mugitzen diren behartuko du. 5 minutu pasa ostean rolak aldatuko dira. Hona hemen adibide batzuk: <ul style="list-style-type: none"> - Bularra bete, bularra hustu. Tripa bete, tripa hustu. - Bularra bete, tripa bete, bularra hustu, tripa hustu. - Tripa bete, bularra bete, bularra hustu, tripa hustu. 		
Taldekatzea	Binaka	Denbora	10 minutu
5. jarduera: Amaierako elkarrizketa		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Irakasle eta ikasle guztiak borobilean eseriko dira, irakasleak elkarrizketa zuzenduz. Elkarrizketarekin hasteko, irakasleak aurreko jardueran egindakoaz hausnarketa bultzatuko du, arnasketari eta haren garrantziari buruz hitz eginez. Ondoren, hirugarren jardueraz mintzatuko da, gure gorputzeko zer atalek horrelako erritmoak egiten dituen galdetuz; bihotz-taupadei buruz hitz egiteko. Honi esker, hiltzean bihotza eta arnasketa-sistema gelditzen direla aipatuko da. Amaitzeko, bizi zikloa aipatuko da, bigarren jardueran oinarrituz. Hemen bizi zikloa heriotzarekin amaitzen dela aipatuko da, baina, heriotza ez dela beti zahartzaroan heltzen aipatu beharko da, hori hurrengo egunean landuko dutela esanez.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	15 minutu

E.1.5 Bostgarren saioa: Detektibeak gara!

Saioaren zenbakia: 5		Saioaren izenburua: DETEKTIBEAK GARA!	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotzaren kausalitatea ulertzea. • Hitzik gabeko komunikazioaren bidez adieraztea. • Interpretazio sorkuntza txikiak egitea. • Talde-lana eta ikasleen arteko akordioak bultzatzea. 		
1. jarduera: Sarrera		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	Irakaslea eta ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Bertan, aurreko saioetan landutakoa guztion artean gogoratuko dute, heriotza saihetsezina eta itzulezina dela eta gelditze-funtzionala dakarrela gogoraturaz.		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	10 minutu
2. jarduera: Egoerak bilatzen		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Irakasleak ikasleei egoera ezberdinak emango dizkie. Ikasle bakoitzak tokatu zaion egoeraren errepresentazioa egin beharko du, hitz egin gabe. Horri esker, egoera berdina daukaten ikasleak bilatu beharko dituzte, talde ezberdinak sortuz. Hauek dira proposatzen diren egoerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasuna - Kotxe istripua - Tsunamia - Borroka - Sutea - Atentatua - Hegazkin istripua - Lurrikara 		
Taldekatzea	Egoeren arabera	Denbora	5 minutu

3. jarduera: Antzerkiak asmatzen + elkarrizketa		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Aurreko jardueran sortutako taldeetan, ikasleek 1-2 minutuko interpretazio txikiak sortu beharko dituzte, haien egoera gainontzekoei aurkezteko. Interpretazioan ezin izango dute hitz egin, ezta materialak erabili. Interpretazioa prestatzeko, ikasleek 5-10 minutu izango dituzte eta, ondoren gainontzekoei aurkeztuko dizkiete.</p> <p>Egoera aurkeztu ondoren eta gainontzekoek asmatzean, irakasleak egoera eta heriotza lotzeko hausnarketa bultzatuko du, ikasleei protagonismoa ematen. Egoera batzuetan elkarrizketa luzeagoa izango da eta besteetan motzagoa, ikasleen esperientziaren arabera.</p>		
Taldekatzea	8 talde, aurreko jardueren egoeren arabera	Denbora	35 minutu

E.1.6 Seigarren saioa: Guztiok berdin

Saioaren zenbakia: 6		Saioaren izenburua: GUZTIOK BERDIN	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotzaren aplikagarritasuna ulertzea. • Taldearen eta norbanakoaren erritmoak ezagutzea. • Talde dinamika lantzea. • Gaitasun erritmikoa garatzea. 		
1. jarduera: Sarrera		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Irakaslea eta ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Bertan, aurreko saioetan landutakoa guztion artean gogoratuko dute, heriotza saihetsezina eta itzulezina dela, gelditze-funtzionala dakarrela eta kausa ezberdin asko daudela gogoratzuz.</p>		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	10 minutu
2. jarduera: Estatuak gara		Materiala	Musika jartzeko gailua
Azalpena	<p>Musika jartzean ikasle guztiak espaziotik mugitzen eta dantzatzen hasiko dira, musikaren erritmoan. Musika gelditzean, ikasleek zeuden posizioan geldituko dira. Mugitzen den ikaslea eliminatuko da.</p> <p>Ikasle guztiak eliminatu arte errepikatuko da.</p>		
Taldekatzea	Banaka	Denbora	5 minutu

3. jarduera: Ehiztariak eta untxiak		Materiala	Baloiak
Azalpena	<p>Hiru ikasle ehiztariak izango dira eta bakoitzak baloi bat eramango du. Gainontzekoak untxiak izango dira. Irakasleak musika jarriko du eta guztiak musikaren erritmoan mugituko dira. Musika gelditzean, guztiak geldi geratuko dira eta ehiztariak untxiak harrapatzen saiatuko dira, baloia jaurtiz. Hau egiteko, ehiztariak hiru pausu emateko aukera izango dute. Baloiarekin emanez gero edo untxiek baloia ekiditeko mugituz gero, eliminatuta egongo dira. Untxi guztiak eliminatzean, ehiztarien artean egingo da, guztiak eliminatzeko.</p>		
Taldekatzea	Hiru ehiztari guztien kontra	Denbora	10 minutu
4. jarduera: Memory		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Batek gorputz perkusioko keinu bat egingo du. Hurrengoak lehenengoaren keinua gehi berea egin beharko du. Horrela etengabe arituko dira. Norbait okertzean, okertu den pertsona eliminatuko da eta hurrengoak berriro keinu batekin hasiko da. Jarduera bakar bat geratzean amaituko da.</p>		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	10 minutu
5. jarduera: Amaierako elkarrizketa		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Irakaslea eta ikasle guztiak elkarrekin borobil batean eseriko dira, jarduerak komentatzeko. Elkarrizketa honetan, irakaslearen helburua ikasleek jarduerak eta heriotzaren aplikagarritasuna lotu dezaten izango da. Aplikagarritasuna (guztiok hiltzen gara) ulertzeko ezaugarri zailena den heinean, ikasleek elkarbanatzen dituzten pentsamenduak eta hunkipenak entzutea ezinbestekoa izango da.</p>		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	15 minutu

E.1.7 Zazpigarren saioa: Heriotza ezagutzen dugu

Saioaren zenbakia: 7		Saioaren izenburua: HERIOTZA EZAGUTZEN DUGU	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotza-doluaren fase ezberdinak ezagutzea. • Hitzik gabeko komunikazioaren bidez adieraztea, taldetan interpretazio sorkuntza txikiak eginez eta sormena garatuz. • Emozioak ezagutzea eta interpretatzen jakitea. • Espazio pertzepzioa lantzea. 		
1. jarduera: Sarrera		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Irakaslea eta ikasle guztiak borobil batean eseriko dira. Bertan, aurreko saioetan landutakoa guztion artean gogoratuko dute, heriotza saihetsezina eta itzulezina dela, gelditze-funtzionala dakarrela, kausa ezberdin asko daudela eta haren aplikagarritasuna gogoratuz. Ondoren, heriotza-dolua aurkeztuko da definizio txiki bat emanaz.</p>		
Taldekatzea	Talde osoa	Denbora	5 minutu
2. jarduera: Musika sentitzen		Materiala	Musika entzuteko gailua
Azalpena	<p>Heriotza-doluan zehar sentitzen diren emozioak errepresentatzen dituzten musika instrumentalak jarriko dira (tristea, haserrea, alaia, beldurgarria...). Musika entzuten den bitartean, ikasleak espaziotik mugitzen joango dira, musikak sorrarazten diena errepresentatuz. Jarri beharreko musikak ikusteko, joan <u>E.4 MUSIKA SENTITZEN JARDUERAREN MUSIKA</u> eranskinera.</p> <p>Musika guztiak entzun ostean, guztiak elkarrekin eseriko dira eta musika bakoitzak zer transmititu dien galdetuko da. Horrekin batera, norbait hiltzean emozio horiek sentitzen direla azalduko da, heriotza-dolua aurkeztuz.</p>		
Taldekatzea	Banaka	Denbora	10 minutu

3. jarduera: Agurrak		Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	<p>Ikasleak espaziotik ibiltzen egongo dira eta <i>ya!</i> Esatean ondoan daukaten ikaslea agurtuko dute. Agurtzeko, norbait hiltzean sentitzen dutena adierazi beharko dute. Batzuetan egin ostean, ikasleak elkartuko dira eta adierazi dituzten emozioez mintzatuko eta hausnartuko dute. Horretarako irakasleak <i>denak berdina sentitu duzue? edo zergatik sentitzen duzue hori?</i> bezalako galderak egin ditzake.</p>		
Taldekatzea	Banaka	Denbora	10 minutu
4. jarduera: Itzal txinatarrak		Materiala	Argi-fokua, oihal zuria, heriotza-dolua azaltzen dituzten txartelak.
Azalpena	<p>Ikasle talde bakoitzari txartel bat egokituko zaio. Txartel bakoitzean heriotza-doluaren fase bat labur azalduta egongo da. Talde bakoitzak egoera hori errepresentatzen duen obra pieza motz bat egin beharko du, besteei aurkezteko. Prestatzeko 5-10 minutu izango dituzte.</p> <p>Errepresentazioak ordenean gainontzekoei aurkeztuko zaizkie eta bakoitzaren ostean, heriotza-fase horren azalpen laburra emango da, horri buruzko elkarrizketa eta hausnarketa bultzatuz.</p>		
Taldekatzea	5 talde	Denbora	25 minutu

E.2 HASIERAKO ETA AMAIERAKO EBALUAZIOA

E.2.1 Galdetegia

Izena:	BAI	EZ DAKIT	EZ
Animali guztiak hiltzen dira.			
Norbait hiltzean, udan beroa dauka.			
Pertsona bat hiltzen bada, lotan dago.			
Pertsona guztiak hiltzen dira.			
Pertsona bat hil ondoren, berriro bizi daiteke.			
Pertsona edo animali zaharrek soilik hil daitezke.			
Heriotza hurbiltzen denean korrika ateratzen banaiz ez naiz hilko.			
Nire lagunak hil daitezke.			
Nire gurasoak hilko dira.			

E.2.2 Elkarrizketarako galderak

Galdera hauek Sánchez-Aguilar et al.-ek (2021) proposatutakoan oinarritzen dira.

- Zergatik hiltzen gara?
- Zerk eragin dezake heriotza?
- Zer gertatzen da hiltzen garenean?
- Norbait hiltzean, zer sentitzen dute haren inguruko pertsonak?

E.3 ERDIKO EBALUAZIOA

E.3.1 Bigarren saioaren ebaluazioa

Ikaslea:	BETI	GEHIENETAN	BATZUETAN BAI, BESTEETAN EZ	GUTXITAN	INOIZ EZ
Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko gai da.					
Elkarrizketetan parte hartzen du.					
Gaiarekiko interesa adierazten du.					
Jarduera ezberdinetan gogotsu parte hartzen du.					
Jardueren arauak errespetatzen ditu.					
Heriotzaren saihetsezintasuna ulertzen du.					

E.3.2 Hirugarren saioaren ebaluazioa

Ikaslea:	BETI	GEHIENETAN	BATZUETAN BAI, BESTEETAN EZ	GUTXITAN	INOIZ EZ
Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko gai da.					
Elkarrizketetan parte hartzen du.					
Gaiarekiko interesa adierazten du.					
Jarduera ezberdinetan gogotsu parte hartzen du.					
Jardueren arauak errespetatzen ditu.					
Heriotzaren itzulezintasuna ulertzen du.					
Haren sentimenduak adierazten ditu.					

E.3.3 Laugarren saioaren ebaluazioa

Ikaslea:	BETI	GEHIENETAN	BATZUETAN BAI, BESTEETAN EZ	GUTXITAN	INOIZ EZ
Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko gai da.					
Elkarrizketetan parte hartzen du.					
Gaiarekiko interesa adierazten du.					
Jarduera ezberdinetan gogotsu parte hartzen du.					
Jardueren arauak errespetatzen ditu.					
Arnas eta zirkulazio aparatuen eta heriotzaren arteko lotura ikusten du.					
Heriotzak gelditze-funtzionala dakarrela ulertzen du.					
Haren sentimenduak adierazten ditu.					

E.3.4 Bostgarren saioaren ebaluazioa

Ikaslea:	BETI	GEHIENETAN	BATZUETAN BAI, BESTEETAN EZ	GUTXITAN	INOIZ EZ
Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko gai da.					
Elkarrizketetan ekarpenak egiten ditu.					
Gaiarekiko interesa eta kezka adierazten du.					
Jarduera ezberdinetan gogotsu parte hartzen du.					
Interpretazio txikiak egiteko gai da.					
Interpretazio ezberdinak ulertzen ditu.					
Heriotzaren kausalitatea ulertzen du.					
Haren sentimenduak adierazten ditu.					

E.3.5 Seigarren saioaren ebaluazioa

Ikaslea:	BETI	GEHIENETAN	BATZUETAN BAI, BESTEETAN EZ	GUTXITAN	INOIZ EZ
Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko gai da.					
Elkarrizketetan ekarpenak egiten ditu.					
Gaiarekiko interesa eta kezka adierazten du.					
Jarduera ezberdinetan gogotsu parte hartzen du.					
Heriotzaren aplikagarritasuna ulertzen du.					
Haren sentimenduak adierazten ditu.					

E.3.6 Zazpigarren saioaren ebaluazioa

Ikaslea:	BETI	GEHIENETAN	BATZUETAN BAI, BESTEETAN EZ	GUTXITAN	INOIZ EZ
Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko gai da.					
Elkarrizketetan ekarpenak egiten ditu.					
Gaiarekiko interesa eta kezka adierazten du.					
Jarduera ezberdinetan gogotsu parte hartzen du.					
Hitzik gabeko komunikazioari esker komunikatzeko gai da.					
Interpretazio txikiak egiteko gai da.					
Interpretazio ezberdinak ulertzen ditu.					
Heriotza-doluaren fase ezberdinak ezagutzen eta ulertzen ditu.					
Haren sentimenduak identifikatzen ditu.					
Haren sentimenduak adierazten ditu.					

E.4 MUSIKA SENTITZEN JARDUERAREN MUSIKA

MUSIKA SENTITZEN		
Tristura	Denbora	Hasi 1:20 minutuan / Amaitu 1:50 minutuan
	Erreferentzia	Jurrivh. (2023ko martxoaren 19a). <i>Forever Alone - Sad & Emotional Piano Song Instrumental</i> [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=XIxzVEQB18k
Haserrea	Denbora	Hasi 0:00 minutuan / Amaitu 0:40 minutuan
	Erreferentzia	Cárdenas-Torres, V. L. (2023ko martxoaren 29a). <i>IRA EMOCIÓN</i> [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=l8SXLhaZ1Rg
Alaitasuna	Denbora	Hasi 24:48 minutuan / Amaitu 25:08 minutuan
	Erreferentzia	Mi little chef. (2016ko uztailaren 25a). <i>Música instrumental para niños felices</i> [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=lS6P_VchEko
Beldurra	Denbora	Hasi 0:04 minutuan / Amaitu 0:45 minutuan
	Erreferentzia	Música de relajación. (2017ko urriaren 30a). <i>Música Instrumental de Miedo, Terror, Suspenso, Misterio</i> [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=JV0qDRW_sec